

**Herririk Herri** |3|

EAJ eta PPren aldeko botoekin onartu dituzte Durangoko aurrekontuak



**Berbaz** |8|

C. Sampedro: "Hezkuntza azpiegiturek konponbide orokorra behar dute"

**Kultura** |11|

'Ipuin BEROtikoak' saioaz berbetan, Kandelan Argipean taldeko kideagaz

## Ezingo da eskolarik eraiki zalantzak argitu arte

Hiri Frogan puntako korrikalariak parte hartuko dute etzi

**KIROLA**• Domekan 31. Iurretako Hiri Froga korrituko dute goi mailako korrikalariak. Gizonetan, 1.500 metrotan Europako txapeldun den Manuel Olmedo dator. Emakumeetan, Dolores Checa eta Paula González dira nabarmendu beharrekoak. Zaletasuna sortzeko sei urtera artekoen lasterketa ere eratu dute.

16

> Atxondoko Udalarri eta auzokideei lurren gaineko akordioa lortzeko eskatu die Jaurilaritzak

> Hori egin ezean, obra legearen barruan dagoela frogatu beharko du udalak

2

### Aireko argazkiek erakutsi dutenez, "zibilak izan ziren bonben jomuga"

**Durango**• Martxoaren 31ko Durangoko bonbardaketa gogoratzeko ekimenen artean, sasoiko argazkien erakustaldia egin zuten San Agustinen, Gerediagak, Berbaroketa Kriskitinek antolatuta. Besteak beste, Italiako abiazioak bonbardaketa egunean airetik egindako argazkiak erakutsi zituzten, eta Jon Irabazal Gerediagako kideak ikuspuntu berri horretatik aztertuz Durango erasotu zuten eguna. Argazkian ikusten denez, hasieran erasoak zibilak zeuden eremura bideratu zuten, balio estrategikoa izan zezaketen tokiak bere horretan utziz. Elorrio, Mañaria eta Otxandioko aireko argazkiak ere erakutsi zituzten.

7



Txelu Angoitia

• **Elorrio**

Berrio-Otxoako lanak dira inbertsio nagusia aurrekontuetan

6

• **Abadiño**

Traña-Matienara tokialdatuko dute Zelaietako Correosen bulegoa

4

• **Zaldibar**

Aurrekontuetako 181.000 euro, haurreskolako lanetarako

7

• **Iurreta**

Martxan dago Amilburuko pasabideko igogailu berria

6

**a-metz**  
**[barne] diseinua**

Diseinua - Dekorazioa - Ideiak - Proiektuak 3D  
Legalizazioak - Erreformak - Gremioen koordinazioa - Altzariak - Osagarriak

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • www.a-metz.com

# HERRIRIK HERRI >

**DURANGO**

## Bonbardaketen asmoa "zibilak hiltzea" zela erakutsi dute argazkiek

Durango, Elorrio, Mañaria eta Otxandioko erasoen argazkiak ekarri dituzte Italiako artxibo militarretik

**D**urango eta Iurreta arteko Montoiko zubia ikuspuntu militarretik garrantzitsua zen duela 74 urteko udaberrian. Bertatik zetozen, esaterako, gudariak fronteetara. Baina Italiako Aviazione Legionariak ez zuen zubi hori bonbardatu. Gune militarrek eta trenak gelditzen ziren lekua ere ez zituzten erasotu. Alde zaharreko etxeak eta elizak, berriz, bai; duela 74 urteko aireko argazkietan garbi ikusten da hori.

Gerediaga elkarteko Jon Irabazabal eta Txelu Angoitia Erroman izan dira, Italiako artxibo militarrean. 1937an Aviazione Legionaria-ko hegazkinek bonbardaketa uneetan ateratako argazkiak ekarri dituzte, eta eguaztenean argaz-

ki horietako batzuk erakutsi dituzte San Agustin kulturgunean.

1937ko Elorrioko, Durangoko, Otxandioko eta Mañariko bonbardaketen argazkiak daude Erromatik ekarritakoen artean. Jon Irabazabalek nabarmendu du "poblazio zibila kokatuta zegoen lekuak" bonbardatu zituztela, eta argazkietan "argi" ikusten dela "asmoa zibilak eta herria suntsitzea" zela. Irabazabalek salatu duenez, "74 urte eta gero Durangoko herriari erantzuleetako inork ez dio ezer esan".

**Argazkiek kontatutako gerra** Gerran ateratako argazkiei eman diete garrantzia Oroimen Eguneko ekitaldietan. Gerediagak Erromatik ekarritako argazkiak erakutsi aurretik, Juantxo Egaña argazkilariak gerraren kronika egin du, 1936tik 1945era Euskal Herrian egindako argazkiekin. ■ A.Ugalde

**Argazkietan ikusten denez, hegazkinek ez zituzten militarri estrategikoak ziren guneak bonbardatu**

> Bideoa: [www.anboto.org](http://www.anboto.org)



Bonbak non bota zituzten zehatz ikusten da Gerediagak ekarritako argazkietan.

## Oroimen ekitaldia burutu zuten kanposantuan

Durangon hainbat ekitaldi izan dira bonbardaketa gogoratzeko: Eguen eguerdian, Durangoko Udalak antolatuta, omenaldia egin zuten Gerra Zibiliko biktima guztiei kanposantuan.

Bestalde, atzo iluntzean, Berbarok, Gerediagak eta Kriskitinek antolatuta bonbardaketaren oroimen ekitaldia (lore eskaintza, aureskua, goraintziabestia...) egin zuten Andra Mariko elizpean. ■ J.D.



K.Aginako

## PSE-EEK Durangaldeko zerrendak aurkeztu ditu

Durangoko Gran Hotelaren lorategian burutu du PSE-EEK maiatzeko hauteskundeetan Durangaldeko herrietan hautagai izango direnen aurkezpena. Durango, Abadiño, Iurreta, Zaldibar eta Berrizko sozialisten zerrendetako hautagaiek eta PSE-EEren Pastor bozeramaileak hartu dute ekitaldian parte.

"Euskadira hogeita hamar urteotako lehenengo gobernu ezkertiarrek ekarri duen aldaketa Bizkaiko udaletara eta Aldundira ere zabaltzea" da PSE-EEren helburuetako bat, asteon egin duten aurkezpenean azaldu dutenez. ■ I.E./A.U.



## Aralarren zerrendaren eta programaren aurrerapena



Durango "bere osotasunean ezagutzen duen jendeagaz" zerrenda osatzen dabilela azaldu du Aralarrek asteon. Zerrendako lehenengo bostak hauek izango dira: Dani Maeztu, Iker Urkiza, Amparo Ereñaga, Mikel Anderez eta Lorea Sarrionandia. Zerrendan ordenarik oraindik ez dute, esaterako, Jose Ramon Arrizabalagak, Angi Uriak eta Jabier Larrabidek.

Aralarren programan jasota datoz, besteak beste, parte hartze dinamikak bultzatzea, herri barruko fabrikak industriaguneetara bultzatzea eta alokairuko etxebizitzak eraikitze aukerak aztertzea. ■ A.U.

## EAJk azken lau urteotako "argilunak" baloratu ditu

Juanjo Ziarrustaren heriotzak eta egoera ekonomikoak azken lau urteotako jarduna "zaildu" egin dutela baina jeltzaleek "talde izaera indartu" dutela azaldu du Aitziber Irigorasek, EAJk legegintzaldiaren balorazioa aurkezteko egin duen ekitaldian.

Urteotan gizarte zerbitzuetan murrizketarik ez egiteko "ahalegin handia" egin dutela azaldu du Irigorasek, eta pozik agertu da liburutegiaren eta igerilekuen harreragatik. "Krisia dela-eta", aitortu duenez, ezin izan dute gizarte ekintzarako Uribarriko egoitza zaharra berritzu eta zentro zibikorik garatu. ■ A.U.





# Sapuetxe botatzea onartu dute 2011ko aurrekontuetan

31 milioi euroko aurrekontua EAJren eta PPren botoekin onartu dute

**A**urrekontuen osoko bilkuran Sapuetxeko 30 bat lagun kaleratu dituzte martitzen honetan. Gaztetxea botatzea onartu dute aurrekontuen barruan, eta horren kontrako protesta egitera gerturatu dira gazteak udaletxera.

PSE-EEk egindako emendekin baten bitartez onartu dute gaztetxea eraistea. Udalak 200.000 euro inguru beharko ditu horretarako. Gobernu taldeaketa alderdi popularrak aldeko botoa eman diote batzordean proposameneri eta aurrekontuen zirriborroan barneratuta egon da. EAJk eta PPK alde bozkatuta, 31 milioi euroko aurrekontua onartu du udalbatzak.

Azkenean udaltzainek indarrez atera dituzte pleno aretotik.

## PPren babesa

Gobernu taldeak aurrekontuetako proposamen batzuri ezetz esan diotela azaldu du, "ez delako erraza diru hori biltzea". Akordioetara heltzen ahalegindu direla nabarmendu dute.

PPk aurrekontuen alde bozkatu du, euren 12 emendakinetik 10 onartu dituelako gobernu taldeak, eta "erantzukizunez" jokatu gura izan dutelako.

Aralarrek eta Talde Mistoak kontra bozkatu dute. Talde Mistoak osotasuneko emendakina aurkeztu du, kudeaketa ereduagaz

bat ez datozelako; besteak beste, "aurrekontuen eztabaida zerga politikarenagaz batera" egin beharko litzatekeela azaldu dute.

Aralarrek euren proposamenei "dirurik ez dagoela" erantzun dietela salatu du, eta zerga eta tasen igoera aldarrikatu du; "badaude tresnak dirua batzeko, baina ez dira behar den moduan erabili".

PSE-EE abstenitu egin da. Hamasei emendakinetik bi onartu dizkietela azaldu du Pilar Riosek, eta ezezkia ez dutela bozkatu "PSE-EErentzat lehentasuna duten proiektuak" daudelako aurrekontuan: Urki-Hegoalde lotunea eta San Faustoko zentro zibikoa, kasurako. ■ A. Ugalde

## Aurrekontuen eztabaidan hitza hartu gura izan zuten gazteek, eta amaierara arte itxaroteko eskatu zieten

Sapuetxeko gazteek hitza hartu gura izan dute osoko bilkuran, baina alkateak pleno amaierara arte itxaroteko eskatu die. Gazteek, baina, ez dute itxaron gura izan: "Amaieran zertarako egingo dugu berba, ordurako bozkatuta egongo bada?", zioten gazteek. Talde mistoko eta Aralarreko zinegotziak izan ezik beste guztiek aretoa utzi eta gazteei aretotik irteko eskatu die udaltzain buruak.



30 bat gaztek Sapuetxeren aldeko mezuak oihukatu zituzten.

## GARAI

# 60 lagun inguru batu ziren Kultur Etxearen inaugurazioan

Zapatuan herritarrei lokalak erakutsi eta gero, 15 egun barru hasi ahal izango dute erabiltzen

Joan zen zapatuan egin zuten Garaiko Kultur Etxe berriaren inaugurazio ekitaldia. Hantxe izan ziren herriko ordezkariak, eta baita Durangaldeko beste hainbat ere. Iurreta, Zaldibar, Mallabia eta Izurtzako alkateak, eta Durangoko eta

Mañariko zinegotzi bana ere hurre-ratu ziren instalazio berriak bertatik bertara ezagutzera. Hauetaz gainera, 60 herritar inguru elkar-tu ziren ekitaldian.

Dantzarien saioa eta bisitaren ondoren, luntxa izan zuten prest bertaratu zirenek.

## Erabilera

Herritarrek zapatuan izan zuten azpiegitura berria ezagutzeko aukera, baina erabiltzeko aste pare bat itxaron beharko dute. Gontzal Sarrigoitia alkateak azaldu digunez, atek zabaltzeko egokituko den txartel bidezko sistema ipintzeko dago oraindik, eta 15 egun barru egongo da martxan. ■ M.O.

**Ateak zabaltzeko egokituko duten txartel bidezko sistema ipintzeko dago oraindik; 15 egun barru egongo da martxan**



Luntxagaz amaitu zuten inaugurazio ekitaldia. Juanra de la Cruz

## DURANGALDEA

### Trafiko istripuen biktimei arreta psikologikoa eskaintzen

Stop Accidentes elkarteak zerbitzu berria eskaintzen hasi da martxoan: arreta psikologikoa emango die trafiko istripuen biktimei eta euren familiei, "istripuabizi ondorengo egoera hobetzeko". Lagun Aro fundazioagaz batera sortu du zerbitzua.

### Stop Accidentes elkarteak banan-banako zein taldekako zerbitzuak eskaintzen ditu

Astelehenetik barikura Stop Accidenteseko psikologo bat egongo da elkarteak Pinondon duen ordezkartzan, 10:00etatik 14:00etara. Beragaz hartu-emetan ipintzeko *psicologa@stopaccidentes.org* helbidea sortu du elkarteak, eta telefonoz ere deitu daiteke: 94 603 3000.

Banan-banako arretaz gainera asteburuetan talde terapiak eta trebetasun tailerrak eskainiko ditu Stop Accidentesek hilean birritan. ■ A.U.

### Enpresak nazioartean zelan zabaldu jakiteko tailerra

Nazioartean zabaldu gura duten enpresei, urrats hori zelan eman ahal izango den tailerra antolatu dute Durangaldeko Amankomunazgoak eta Cebek Bizkaiko enpresarien konfederazioak. Apirilaren 5, 7, 12, 14 eta 15ean izango dira tailerrak Durangaldeko Behargintzako Atxondo Aretoan, 09:15etik 14:15era. Honako e-mail honetan eman daiteke izena: *ofernandez@cebek.es*. Elkarteak kideentzat doakoa da, eta ez direnentzat 250 euro.

Tailerra, batez ere, produktu edo zerbitzu lehiakorra duten eta merkatu berrietan mugitze-ko aukera aztertzen diharduten enpresa txikiei eta ertainei zuzenduta dago. Helburuen artean daude enpresa partehartzaileei oinarritzko informazio ematea nazioarteko tze estrategiari buruz hausnartzeko, eta beharrezko laguntza publikoak eskatzeko mekanismo egokiak ematea. Aholkulari adituak izango dira tailerretan. ■ J. Derteano

## OTXANDIO XXI S.A.

GARAPENERAKO UDAL ELKARTEA

### OTXANDIO XXI. S.A

OTXANDIOKO LORATEGI HIRIAN  
EGOITZAZKO BI LUR SAIL SALTZEA  
PROZEDURA IREKIZ (ENKANTEA)

**Xedea:** Otxandioko (Bizkaia) UER 16a osatzen duten multzo biak saltzea enkante publikoan.

#### Lizitazio tipoa:

**1 Multzoa:** Gutxieneko eskaintza 289.294,50€, eskaintzaileek prezioa goraka hobetu dezakete.

**2 Multzoa:** Gutxieneko eskaintza 289.294,50 €, eskaintzaileek prezioa goraka hobetu dezakete.

Oinarritzko prezioan ez dago BEZa barne, ez eta notaritza gastuak ez eta Jabego Erroldakoak, adjudikaziodunak hartuko ditu bere gain.

**Behin behineko bermea:** Multzo bakoitzeko 2000,00€koa izango da.

**Behin betiko bermea:** Lur sail bakoitzeko adjudikazio prezioaren %5 izango da.

**Eskaintzak aurkezteko azken data:** 2011ko apirilaren 11n, eguerdiko 14:00ak arte.

**Eskaintzen irekiera:** Otxandioko (Bizkaia) udaletxean, 2011ko apirilaren 14an, arratsaldeko 19:00etan.

**Dokumentazioa:** OTXANDIO XXI, S.A. ren bulegoetan, Otxandioko udaletxean kokatuta dagoena, Plaza Nagusia 1, (10:00etatik 14:00etara).

**Gastuak:** Konkratazio honen iragarkien argitaratzearenak, gehienez ere 900,00 euro izan daitezkeelarik.

Otxandion, 2011ko martxoaren 14an,

Presidentea  
Aritz Otxandiano Campo

ABADIÑO

# Traña-Matienako kiroldegi berriko obrak geldiaraztea eskatu du oposizioak

Ezker Abertzaleko eta EAJko zinegotziek sinatu dute idatzizko eskaria



Obren finantzabideagaz loturiko arrazoiak eman zituzten gelditzea eskatzeko. Kepa Aginako

**M**artitzeneko udalbatzarian, galdera eta eskarien tartean egin zuten Traña-Matienan eraikitzen diharduten erabilera anitzeko kiroldegiko obrak gelditzeko eskaria EAJk eta Ezker Abertzaleak. Obren finantzabideagaz loturiko argumentuak mahai-gaineratu zituzten oposizioko zinegotziek obrak gelditzea eskatzeko. Oposizioko alderdiek azaldu zuten, iazko uztailean

“kanposantuko hilobiak eta klausura berriztatze” diru-atala handitu eta gero, kreditu transferentzia bitartez 166.321 euro Traña-Matienan kiroldegia eraikitzeko

**Aurrekontua gauzatzeko udal araudiak zehazten dituen mugak apurtzea egotzi dio oposizioak udal gobernari**

proiektura bideratzea erabaki zuen udal gobernua 2010eko abendu-ko Alkatetza Dekretu batez: horrek aurrekontua gauzatzeko udal araudiak zehazten dituen mugak apurtzen dituela irizten diote eskatzaileek.

Oposizioaren eskari eta argumentuen gaineko txostena osatu eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora igortzea dagokio orain udaleko idazkariari. ■ I.Esteban

# Correosen bulegoa Traña-Matienara lekualdatuko dute

Arduradunen berbetan, “abadiñar gehienek zerbitzua eskurago” izatea lortuko dute orain

Gaur egun Zelaieta auzoan daukan bulegoa Traña-Matienako San Prudentzio kaleko lokal batera lekualdatzeko asmoa dauka la baiezta du Correos taldeak. Arduradunen berbetan, oinezkoendako zein autoentzako irisgarritasun handiagoko 235 metro karratuko lokalaren egokitze proiektua burutzen dihardute.

**Traña-Matienako bulego berriaren lokala egokitzeko proiektua osatzen dihardute**

Correosen Bizkaiko arduradunek azaldu dutenaren arabera, “orain arteko zerbitzuak mantentzea” dute helburu lokal aldaketagaz, baina “abadiñar gehienentzat eskurago” eskaintzea.

Talde Independentetako Jose Luis Navarro alkateak, bere taldearen jarrera Zelaietako bulegoa mantentzearen aldekoa izan dela beti azpimarratu du, eta, izatekotan, begi onezikusten duela Traña-Matienan beste bat zabaltzea.

Bulego berria erabilgarri noiz egongo den orainoz ezin duela aurreratu dio Correosek. ■ I.E.

MAÑARIA

## Etxebizitzetan igogailua ipini ahal izateko laguntza

Etxebizitzaren barruan igogailua ipintzeko lekuri ez daukaten etxeetan igogailua ipintzea erraztea helburu duen arautegia onartu zuten joan zen barikuan udal txostean. Etxean espazio nahikoa ez dutenei “domeinu publikoko lurrak” utziko dizkie udalak, igogailua ipini ahal izateko.

**Semaforoak**

Herriko sarrera eta irteeretan bi semaforo ipintzeko obrak burutzen dihardutela azaldu digute udal gobernuko arduradunek asteon. Bizkaiko Aldundia dabil lanok burutzen: oinezkoen zirkulazioa erraztuko dute Kurutze Santu ondoan eta Artzubiko autobusen geltoki inguruan ipiniko dituzten semaforoak. ■ I.E.

**Eraikin barruan igogailua ipintzeko lekuri ez dutenei ipintzea errazteko arautegia**

OTXANDIO

## Gimnasioko soinu kalitatea ontzeko lanen adjudikazioa

Otxandioko Udalak Mainondoko eskolan hainbat lan egiteko asmoa dauka, eta hauek burutzeko laguntza jaso du Eusko Jaurlaritzatik. Lanen baitan gimnasio berriko sonoritatea hobetzea sartzen da.

**Eskolako zereginetaz gainera, hainbat ekitaldi egiten dira gimnasioan**

Eskolako funtzioetaz gainera, hainbat ekitaldi egiten dira gimnasioan: antzerkiak, bertso saioak... “Sonoritate nahiko txarra” daukala azaldu digu Ariz Otxandiano alkateak, eta horregatik egingo dituztela lanak. Besteak beste, panel batzuk egokituko dituzte.

Hobekuntza horietarako inbertsioa 17.000 eurokoa da, eta udalak adjudikatu ditu lanak, udalbatzarrean onartuta. ■ M.O.

## Independienteen hautagai berrien aurkezpena

Udal hauteskundeetara aurkeztuko duten zerrendaren aurkezpena egin dute Abadiñoko Independentek taldeko Antonio Serrano eta Argi Abad zinegotziek eta Jose Luis Navarro alkateak. Aipatutako hiruiek betetzen dituzte Abadiñoko Independentek taldearen zerrendaren lehengo postuak. Zerrendaren %80 izen berriekin osatu dutela azpimarratu zuen Navarro alkateak, eta “sentsibiltate, lanbide, adin eta jatorri askotako auzokideak bildu” dituztela taldean.



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz



- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

**Ainara Urreta Jainaga**  
PODÓLOGA 186. Eikargokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

# ALMACENES ARRASATE

**TIEN 21**



**Intxaurrondo, 12 behea**  
**Tel.: 94 681 34 85**  
**48200 DURANGO**

**Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon**  
**Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13**



 **2** URTA  
 1000 b/min  
 6 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA ALF 1106**  
**265 €** 

 **2** URTA  
 1000 b/min  
 6 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA WAE20010EE**  
**345€** 

 **2** URTA  
 1200 b/min  
 6 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA WM12E221EE**  
**375 €** 

 **2** URTA  
 1200 b/min  
 6 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA IWC 6125**  
**275 €** 

 **2** URTA  
 1000 b/min  
 8 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA WAQ20361EE**  
**435 €** 

 **2** URTA  
 1200 b/min  
 8 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA F-2812**  
**455 €** 

 **2** URTA  
 1400 b/min  
 8 kg  
**A+** Saikapen energetikoa  
**GARBIGAILUA L-74950-A**  
**545 €** 

 **2** URTA  
 7 kg  
**B** Saikapen energetikoa  
**LEHORGAILUA T-56840-L**  
**435€** 

 **2** URTA  
 7 kg  
**B** Saikapen energetikoa  
**LEHORGAILUA WTE8631 PEE**  
**475 €** 

 **2** URTA  
**GARBIGAILUA ROOMBA 531**  
**370 €** 

 **2** URTA  
**A** Saikapen energetikoa  
**LABE PIROLITIKOA HB-73AR521**  
**INDUKZIOZKO PLAKA**  
**899 €** 

 **2** URTA  
**A** Saikapen energetikoa  
**INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220**  
**LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M**  
**950 €** 

 **2** URTA  
 1850 X 600 X 600  
**A+** Saikapen energetikoa  
**NO FROST**  
**HOZKAILUA KG36NX03**  
**450 €** 

 **2** URTA  
 1850 X 600 X 600  
**A+** Saikapen energetikoa  
**NO FROST**  
**HOZKAILUA KG36N73**  
**545 €** 

 **2** URTA  
 2000 X 600 X 600  
**A+** Saikapen energetikoa  
**NO FROST**  
**HOZKAILUA KGN 39A77**  
**660 €** 

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.**  
 Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
 Zatoz eta ezagutu galtzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

 **ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA**  
 **MERKATU GERO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA**  
 **GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU**  
 **+dendak-eko "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI**

ELORRIO

## Herriko nagusiei egindako elkarrizketak aurkeztu dituzte

Elorriko euskara aztertzen dabilen Badihardugu euskara elkarteak adineko jendea elkarrizketatzen ibili da azken hileotan. 35 pertsona elkarrizketatu dituzte elkarte-ko kideek, eta eguaztenean testigantza horien aurkezpena egin dute.

Maiatza aldera herriko euskararen gainean egindako ikerketa aurkeztuko du Badiharduguk, eta horretarako orain egindako grabaketak eta lehenago eginda zeudenak erabiliko dituzte.

Herriko hizkeraren isla diren testigantza horiek Badiharduguk kudeatzen duen *ahotsak.com* atarian egongo dira laster ikusgai. Euskal Herriko hizkerak batzen dira web gune horretan. ■ A.U.

## Emakume Eskola emozioak landuz hasiko dute

Aurten Emakume Eskolarako hiru ikastaro antolatu ditu udaleko Berdintasun Sailak. Lehenengoa bihar hasiko da, eta ekainaren 6ra arteko zapatuetan emango dute, adimen emozionalaren inguruan. Emozioak landuta "harreman orekatuagoak eta osasuntsuagoak" lortzea izango da helburua.

Maiatzerako izango dira beste bi ikastaroak. Mugimendu tailerra antolatu dute; mugimenduak aztertu eta mugitzeko modu berriak topatzeko. Teknologia berriak eta feminismoa landuko du beste ikastaroak. Informazio guztia Berdintasun Sailean dago eskuragarai. ■ A.U.

IURRETA

## Gaurtik hasita, martxan dabil igogailu berria Amilburun

Bost bat hilabete iraun duen obra "konplexu" horretan 230.000 euro inbertitu ditu Udalak

Irisgarritasun ikuspegitik "puntu beltza" zena hobetu guran, Amilburun jarritako igogailua martxan dago gaurdanik. Pasabide "garrantzitsua" dela nabarmendu du Iñaki Totorikaguena alkateak, ikastetxeak, kultur etxea eta autobus geltokia aipatuz, besteak beste.

Bost bat hile iraun du obra "konplexu" horrek, 230.000 euroko aurrekontuagaz: "Espazio

**Zortzi lagunentzako lekua dauka eta metro bat segunduko abiadura doa**

# Berrio-Otxoako lanen bigarren fasea amaitzea da 2011ko inbertsio nagusia

7,1 milioi euroko aurrekontua onartu du Elorriko udalbatzarrak



'Txantxibiri' izenez ezagutzen den Berrio-Otxoa kaleko zatiko lanak amaituko dituzte aurten.

**E**AJren abstentzioagaz eta PSE-EE eta EHAren kontrako botoekin onartu dituzte Elorriko 7,1 milioi aurrekontuak. Inbertsio nagusia Berrio-Otxoako kaleko bigarren faseko behar-ak amaitzeko izango da—487.000 euro— eta beste inbertsio guztiak diruzaintzako gerakinagaz —1,5 milioi— ordainduko dituzte.

**Berdintasun teknikaria**

Aurrekontuetan berdintasun teknikariaren plaza ere barneratu da, lehenengo biderrez, langileen plantilan sartu eta gero. EAJK eta PSE-EEK berriro ipini dute zalan-

tzan lanordu osoko beharra ote den. Dagoeneko plaza horretarako eskabideak aurkezteko epea hasita dago.

**Jaio berrientzako laguntza**

EAJK umeak dituzten edo adoptatzen dituzten familiei herriko dendetan gastatzeko 300 euro ematea proposatu du emendakin batean. PSE-EEK alde bozkatu du, baina gobernu taldeak kontra: "Neurria ez dela eraginkorra uste dugu; ez du jaiotza-tasa handitzen lagunduko, eta merkatarientzat ez da hain laguntza handia", azaldu du alkateak. ■ A.Ugalde.

**Asteon hasi da berdintasun teknikariaren plaza betetzeko eskabidea egiteko epea**

**EAJK ume jaio berrien familiei laguntza-txekea ematea proposatu du, baina gobernu taldeak ez du onartu**

MALLABIA

## Plan Orokorriari buruzko ale berezia atera du Udalak

Udalak *Ze Barri* aldizkariaren ale berezia argitaratu du, gai bakarra Herri Antolamenduko Plan Nagusia delarik. Asteburuaran ale etxez etxe banatuko dute, herriguneari zuzenduta. Aldizkariaren Plan Orokorrean definitu beharreko ildo anitzen (ingurugiroa, hirigintza, jardueraren ekonomikoak...) gaineko udal proposamenak zehaztu dituzte, eta baita horietara bideratu dituzten irizpideak ere.

Hala ere, Udalaren asmoa prozesu parte-hartzailea garatzea da, eta batzar informatiboak antolatu dituzte. Hilaren 7an, 19:00etan, Plan Orokorrearen aurrerapenaren aurkezpena egingo dute kultur etxean. Hilaren 12an eta 19an, toki berean eta ordu berdinean, etxebizitza eta ingurumenari eta jardueraren ekonomikoari buruz ariko dira.

**Alegazioak argindar lineari**

Bestalde, joan zen astean aurkeztu zituzten goi-tentsioko argindar lineari aurkeztu beharreko alegazioak. Udalarenak eta herritarrenak batuta, guztira, 1.050 alegazio dira. Hainbat herritarren ekimenez, industriaguneko langileei aurkeztu zieten plana, zabalkunde katea handituz. Azkenean, ekimen horregaz hainbat herritako mila alegaziotik gora batzea lortu dute. ■ J.D.

BERRIZ

## Herriko ondareari dagozkion fitxak, sarean

Berrizko ondare etnografikoa eta linguistikoa zabaltzeko asmoagaz *Aintzinako Berriz, bizimodua eta ohiturak* liburua argitaratu zuen udalak 2008an. Libururako jasotako testigantzak Interneten eskegi dituzte, fitxa didaktiko propioekin. Guztira, 100 fitxa inguru landu dituzte; bakoitzak bere ikus-entzunezko pasarteak ere badauka.

**100 fitxa didaktiko eskegi dituzte udalaren eta Labayruren webguneetan**

Udalak Labayru ikastegiaren laguntza izan zuen egitasmoa garatzeko; horregatik, *www.berriz.org* webgunean ez eze, Labayru ikastegiaren *www.herriondarea.org* atarian ere kontsultatu daitezke fitxak.

Ildo beretik, herriko toponimia mapa egiten dabil udala. Zirriborroa eginda, herritarrei ekarpenak eskatu dizkiete. Udarako argitaratu gura dute. ■ M.O.



Martitzenean lanon gaineko azalpenak eman zituzten. A. Basauri



## Durungaldean labor

### '1.000 Aukera' garraio azoka etzi Durangon

Domekan 1.000 Aukeragarraio azoka egingo dute Hyper Simply supermerkatuko aparkalekuan, 10:00etatik 17:00etara. Bigarren eskuko autoak, motoak, ibilgailu berriak, klasikoak... denetik saldu edo erosi ahal da; Etormobilen bitartez, esaterako, Peugeot 3008 berria erakutsiko dute. Informazioa: [1000aukera.wordpress.com/](http://1000aukera.wordpress.com/).

### Baserri hondakinen bilketa hilaren 12an

Urkiolalanda garapenerako elkarrekin, Bizkaiko Aldundiagaz lankidetzan, baserri hondakinen doako gaikako bilketa egingo du apirilaren 12an Durungaldean. Egun horretan hondakin plastikoak (negutegi-koak, silo bolatakoak) batuko dituzte. Izenematea hilaren 1ean hasi eta 8an amaituko da: 94 620 36 11 edo 615 781 303.

### Dantzari ohien afaria egingo dute Atxondon

Apirilaren 9an, dantzari ohien jaia egingo dute Atxondon, Andasto dantza taldeak antolatuta. Ekimenen artean dantzari ohien afaria dago, eta dagoeneko txartelak salgai ipini dituzte herriko tabernetan. Apirilaren 9ko jaian dantza erakustaldiak eskainiko dituzte, eta Luhartz taldeak ere emanaldia eskainiko da.

### Domekan Euskal Jaia ospatuko dute Elorrion

Besaide dantza taldeak antolatu du ekimena. 11.00etan kiroldegian batu eta 12:00etan kalejiran irtengo dute dantzari guztiek. 13:30ean bazkaltzeko banatu eta 16:30ean batuko dira berriro kiroldegian. 17:00etan dantzak erakutsiko dituzte plazan. Euria ari badu kiroldegira tokialdatuko dute dantza erakustaldia.

#### ATXONDO

## Zalantzak argitzeko eskatu du Jaurlaritzak eskolako auzian

Eskolako gurasoak eta hainbat herritar lanen alde manifestatu dira asteen



Martitzenean eta eguaztenean egin dituzte manifestazioak.

**E**skolako beharrekin jarraitzeko baldintzak ipini ditu, asteen, Eusko Jauraritzak. Lur sailen gaineko zalantzak argitzeko, udalak eta eskola alboko kooperatibako bizilagunek akordioa lortu dezatela eskatu du Jauraritzak, edo, osterantzean, udalak eskolako obretan zalantza legalik ez dagoela frogatu dezala. Atzo batzartu ziren alkatea eta eskola-

ko gurasoen elkarteko kideak Jauraritzako ordezkariekin. Alkateak azaldu duenez, martxoaren 23an auzokideen abokatuak akordio proposamena egin

**Lursailen gainean akordioa lortu edo zalantza legalik ez dagoela frogatu beharko da**

zior udalari, eta honek onartu egin zuen. Ondoren, bizilagunek "atzeratu egin zuten". Aurrerantz, "benetako konpromisoak idatziz" eskatuko ditu Cobosek.

Eskolaren etorkizuna arriskuan egon daitekeela-eta, elkarretaratzeak egin dituzte asteen. Eskolako ordezkariak, udala eta auzokideak gaur batzartuko dira gaiari buruz berba egiteko. ■ A.Ugalde

### Lursailletara etorri dira aktak sinatzera

Alkateak hala eskatuta, lursailletara etorri dira Adifeko ordezkariak asteen, AHTko lanak direla-eta zundaketak egiteko desjabetza aktak sinatzera.

Udala desjabetzen "gainean" egongo dela azaldu du Cobosek: "Desjabetu bako lursail bat bera ere ukitu ez dezaten egingo dugu lan". AHT gelditu! elkarlanak "Ertzaintzaren eta Guardia Zibilaren presentzia itogarria" salatu du. ■ A.U.



Ertzain eta guardia zibil ugari gerturatu da Atxondora.

#### ZALDIBAR

## 2,6 milioi euroko aurrekontua onartu du udalak 2011rako

EAJ, PSE-EE eta Independenteen alde botoekin ateratu dituzte aurrera; EAK kontra bozkatu du

Barikuan egindako udalbatzarraren onartu zuten 2011rako udal aurrekontua. 2,6 milioi euro barneratzen ditu, guztira, eta inbertsioetarako 192.000 aurreikusitako dituzte. Kopuru horren zati handiena, 181.000 euro, Haurreskolako lanetara bideratuko dute.

**Diru-atalik handiena, 181.000 euro, Haurreskolako lanetan inbertituko dute**

Aurrekontuak beherakada nabarmena izan du 2010etik. Izan ere, itxurak 4,2 milioi euro izan zituen, eta inbertsioetan 1,7 milioi sartu zituzten. Igor Barrenetxea-Arandok aipatu zuenez, "krisiak, gainerako administrazio gehienetan moduan, Zaldibarren ere eragina izan du". Egoera horrek bultzatuta hartu dute aurrekontua murrizteko eraba-

kia. Inbertsioen atalean igarri da gehienbat murrizketa; gastuetan, diru-laguntza batzuk ere jaitsi dituztela azaldu zuen EAJko zinegotziak. Inbertsioak egitean "koherentzia eta logika" erabili behar direla gaineratu zuen.

#### EAREN EZEZKOA

EAKo Carmen Sanpedrok udalak bizi duen egoera "aurreko lau urteetako kudeaketa ekonomiko txarraren ondorio" dela salatu zuen. Udaletxea berrizteko erabili den dirua beste proiektu batzuetan inbertitu behar litzatekeela eta kultur etxearen egitasmoa, hezkuntza eremuaren zein alde zaharren eraberritzeak ez direla kontutan hartu esan zuen. Guztiagaz, proposamenaren kontrako botoa eman zuen EAK.

PSE-EEK eta Independenteen zinegotziak proposamena babestu zuten, "une honetan tokatzen dena" dela adieraziz. ■ M.O.

#### IZURTZA

## Gobernuaren balantzea legegintzaldiari buruz

Hamasei orrialdetan, udal gobernuaren lau urteon gaineko balorazioa jaso dute aldizkarian

Ezker Abertzaleko udal gobernuaren legegintzaldiaren balantzea egiten duen hamasei orrialdeko aldizkaria kaleratu dute. Herriko etxeetan banatu eta udalaren Interneteko webgunean ere ikusgai ipini dute, udalean lau urteotan hartutako erabakien eta udal gobernuak bultzatutako neurriei buruzko balantzea egiten duen aldizkaria. Besteak bes-

te, Lorea Muñoz alkatearen legegintzaldiaren balorazioa eta dei bat jaso dituzte aldizkariaren lehenengo orrialdean: legegintzaldi honetan garatu duten "dinamika parte-hartzaileagaz jarraituzera animatu" ditu Muñozek izurtzarrak. Ordenamendu Orokorren berrizte prozesuari, kulturari, ekonomiari eta abarri buruzko balorazioak jaso dituzte aldizkarian. ■ I.E.

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA  
Tfn. 94 681 43 85

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK  
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

katerin ardoak  
iñaki uribe

saltzan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
saltzan.com

## BERBAZ &gt;

# “Kultur etxeko egitasmoari heldu beharko genioke, herritarren iritzia entzunda”

Datorren legegintzaldian udalean “bestelako giro bat” sortzeko aukera itxaroten du Zaldibarko EAko zinegotziak

**D**urangaldean Eusko Alkartasunak zinegotzi gehien dituen herria da Zaldibar. Carmen Sampedro zinegotziak azken lau urteotan oposizioan izan duten esperientziaren berri eman digu. Politika orokorraz ere jardun dugu beragaz berbetan.

*Zelakoa izan da legegintzaldi hau Zaldibarko Eusko Alkartasunarentzat?*

Oposizioan askorik ezin izan dugu egin. Hiru pertsona egon gara beste denen kontra, eta erabaki garrantzitsuetan ezin izan dugu parte hartu. Udalak berak ez du gauza handirik egin. Gure ustez, kudeaketa ekonomikoa txarra izan da; diru piloa gastatu dugu gauza batzuetan, adibidez, udaletxeko konponketetan, eta diru hori beste gauza batzuetan inbertitu beharko litzateke.

“Diru asko gastatu da, adibidez, udaletxeko konponketetan; beste premia batzuk daude”

*Zertan, adibidez?*

Kultur etxearen proiektuari heltzea, adibidez, garrantzitsua da guretzat. Proiektua bazegoen, idaztea 7 milioi pezeta kostatu zitzaiguna. Herrian mugimendua sortu zen proiektu hori aldatzeko, eta azkenean ezer egin barik gordeta geratu da egitasmoa. Gure ustez, konponbidea jendeagaz berba egitea eta denon artean zer edo zer egitea da. Gauzak aldatu daitezke jendeari entzunda; denon artean hobeto egingo dugula uste dugu. Ezin da esan arkitektoak edo alkateak gura duen legez egiten ez bada ezer ez dela egingo. Kultur etxea herriarentzat oso garrantzitsua da eta, gainera, alde zaharrari bizitza emango lioke.

*Alde zaharrak konponketak behar dituela aipatu duzue sarritan...*

Ia ez dago dendarik, eta abandonatuta edo nahiko utzita dago, bai... Kultur Etxea plazan bertan ipinita bizia emango genioke alde zaharri, eta lurrian eta konponketak egin beharko lirake... Pena da jendeak bizimodua bertan ez egitea.

*Hezkuntza eremuak konpontzeko eskariak ere egon dira herrian.*

Orain arte behin-behineko neurriak hartu ditu udalak. Ez gara ibili behar lehenengo haurtzaindegia apur bat konpontzen, gero eskolako beste zati bat konpontzen... Zatika barik



“Hezkuntza eremuetan azpiegiturak osotasunean zelan atondu daitezkeen pentsatu behar du udalak, zatika zelan hobetuko ibili barik”

osotasunean azpiegiturak zelan hobetu pentsatu behar dugu. Orain diote ez dagoela dirurik, baina eskolako barrakoietan, esaterako, diru asko gastatu dugu, eta behin-behineko neurria zen. Behin betiko neurria bihurtu dela ematen du.

*Etxebizitza alorrean premiarik ikusten duzu?*

Orain arte nahikoa etxebizitza egin direla pentsatzen dut. Lurreko Zati Planak ere bazioen proiektu

guztiak lar zirela. Askok eraiki da, eta etxe asko saldu barik daude, gainera. Egitekotan babes ofizialekoak izan behar dutela pentsatzen dugu.

*Beste zer premia ikusten dituzue?*

Anbulategia, adibidez, laster handitu egin beharko dugu, eta pediatria astean bi egunetan barik egunero etorri beharko da. Irisgarritasun kontuetan, espaloiak eta konpondu behar dira. Herrian ez dago oso zainduta alor hori. Gauza handia-

**Carmen Sampedro •**

EAko zinegotzia  
Zaldibarren

- Zaldibartarra
- Ingeniari teknikoa da

“Gure ustez herritarrek EAJren lanaren kontra protestatzeko jo zuten EArengana”

goak egiteko dirurik ez dago, baina beharrezko gauza horietan, bai, inbertitu beharko genuke. Udalaren egoera ekonomikoa ez da oso ona; mailegu bi dauzkagu ordaintzeko, eta zorra % 10eko mugan daukagu. Horregatik aurten –eta nork jakin hurrengo urteetan ere horrela izango ote den– gastu arruntetara mugatu beharko dugu.

*Eusko Alkartasunak Durangalde mailan Zaldibarren dauka indarririk handiena.*

Gure ustez, herritarrek EAJren lanaren kontra protestatzeko jo zuten gugana. Zer edo zer berria egiteko, bestelako giroa emateko udalari... eta gu ere ilusio horregaz hasi ginen beharrean. Ezin izan da gauza handirik egin. Ea aurten...

*Beste alderdi batzuekin hartu-emanetan dabil azkenaldian Eusko Alkartasuna. Zelan ikusten dituzu hauteskondeak?*

Gure artean borrokan gabilta beti, eta horrela ibili beharrean, elkarrengaz hartu-emanak sendotzeko sasoi ona dela pentsatzen dut. Beste bide batzuk zabaltzeko premia dago, eta ikusiko dugu hauteskondeak gerturatu ahala horretarako aukerarik badagoen. ■ A.Ugalde



**Durango**  
**Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21**

Konfiantzaren balioa **piso **

**zure neurrira egokitutako konfiantzazko irtenbideak**

**ZALDIBAR** Erref. 002-493  
 ▶126.212€ (21 milioi)



Erdi berriztuta dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela, komuna eta sukaldea. Garajea. AUKERA EZIN HOBEA!

**IURRETA** Erref. 002-1227  
 ▶179.702€ (29,9 milioi)



Berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. ZATOZ IKUSTERA!

**ARAMOTZ** Erref. 002-1173  
 ▶180.000€ (29,94 milioi)



50 m2. Berriztatuta. Orientazio ona. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. ZURE ETXEBIZITZA IZAN DAITEKE!

**DURANGO** Erref. 002-1140  
 ▶199.000€ (33,1 milioi)



Erdialdean kokatua. Guztiz berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela. Eguzkitsua. Orientazio ona. BERRIA DIRUDI!

**ASKATASUN ETORB.** Erref. 002-1270  
 ▶210.354€ (35 milioi)




Berriztatutako etxebizitza. Igogailua. 2 logela bikoitz, egongela handia eta sukaldea. AUKERA! HILEKO ETXEBIZITZA!

**KOMENTUKALEA** Erref. 002-1235  
 ▶216.364€ (36 milioi)



Igogailua duen etxebizitza. Berriztatuta. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. ZATOZ GUREKIN IKUSTERA!

**SAN FRANZISKO** Erref. 002-1250  
 ▶222.374€ (37 milioi)



Etxebizitza eguzkitsua ikuspegiarekin. 3 logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta balkoia. Trastelekua. BIZITZEKO EGOKIA!

**SASIKOA** Erref. 002-882  
 ▶231.389€ (38,5 milioi)



Orientazio oneko pisua. Eguzkitsua. 15 urte ditu. 2 logela eta berogailua. EZ GALDU AUKERA HAU! SALTZEKO PREMIA!

**BERRIZ** Erref. 002-1233  
 ▶258.435€ (42,9 milioi)



3 urteko alintzinasuna duen etxebizitza. 3 logela bikoitz eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. AUKERA ONA!

**FKO. IBARRA** Erref. 002-1295  
 ▶261.440€ (43,5 milioi)



Erdi berria. 2 logela bikoitz, sukalde-egongela handia eta igogailua. Garajea eta garbarea. SALTZEKO PREMIA!

**ERROTARITXUENA** Erref. 002-1274  
 ▶278.000€ (46,2 milioi)



Estreinatzeke. 2 logela bikoitz, 2 komun, sukaldea balkoia eta eskegitokiarekin, eta egongela handia terrazarekin. ZATOZ IKUSTERA! ZURE ETXEBIZITZA BERRIA IZAN DAITEKE!

**SAN ROKE** Erref. 002-1182  
 ▶291.490€ (48,5 milioi)




Egoitza-gunean kokatutako etxebizitza altua. 3 logela bikoitz, egongela handia, sukaldea balkoia eta eskegitokiarekin eta 2 komun. Igogailua. Garbarea eta garajea.

**PLATERUEN PLAZA** Erref. 002-719  
 ▶294.496€ (49 milioi)



100 m2. 12 urte dituen etxebizitza. 4 logela, 3 komun, egongela handia tximiniarekin eta sukaldea. Garajea eta trastelekua. AUKERA!

**ASKATASUN ETORB.** Erref. 002-1287  
 ▶298.300€ (49,6 milioi)



2 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Orientazio ona. Igogailua. Garajea eta trastelekua.

**MURUETA TORRE** Erref. 002-1204  
 ▶309.521€ (51,5 milioi)



8 urte dituen etxebizitza. Eguzkitsua. 2 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea balkoiarekin. Garajea eta garbarea. PAREGABEA!

**SAN IGNAZIO** Erref. 002-1188  
 ▶312.526€ (52 milioi)



14 urte dituen etxebizitza. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela bikoitz, 2 komun, sukalde handia eta egongela. Garbarea eta garajea. AUKERA ONA!

**HERRIKO GUDARIEN** Erref. 002-1230  
 ▶336.566€ (56 milioi)



Eguzkitsua eta orientazio ona duen etxebizitza. 3 logela bikoitz, 2 komun, egongela zabala eta sukaldea. Igogailua eta berogailua. Garajea eta garbarea. ZUREA IZAN DAITEKE!

**MARTXOAREN 8KO** Erref. 002-1243  
 ▶353.214€ (58,7 milioi)



2 urteko aintzinasuna duen pisu eguzkitsua. 3 logela bikoitz, 2 komun, sukalde handia eta egongela zabala. Garajea itxia. OSO PISU ONA!

**ELORRIO** Eraikuntza berria  
 ▶353.214€ (58,7 milioi)



2 logela trastelekuarekin 177.000 euro, 3 logela trastelekuarekin 227.500 euro, 4 logela trastelekuarekin 283.000 euro, etxebizitzak terrazarekin 225.000 eurotik hasita. Garajeak aukeran. ERAIKITZAILAREN ZUZENEKO PREZIOAK! ETORRI PISO ON-ERA!

**ABADIÑO** Eraikuntza berria



Beheko solairuak 2 logela eta terrazarekin. Garajea eta trastelekua. 214.881 eurotik aurrera (BEZa barne). 3 logelako etxebizitzak garajea eta trastelekuarekin. 352.231 eurotik hasita (bez barne). ERAIKITZAILAREN ZUZENEKO PREZIOAK. AUKERA ONA!



Konfiantzaren balioa

**piso **  
 .com

zure etxea saltzeko edo erosteko...

Zertifikatutako Bizkaiko lehen inbiliaria sarea



# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

## Estatuaren biolentzia gelditu behar dugu. Aski da!

Ondokoa, Beatriz Etxebarria euskal herritarrek Guardia Zibilaren esku egon zen bitartean jasandako tortura larrien testigantzen zati bat da.

Honen aurrean ezin gaitezke itsu, mutu edo gor geratu. Euskal Herrian denon artean zabaldu behar dugun aro berrian horrelakoez ez daukate lekurik, eta guztion lanak baino ez du estatuaren indarkeria etengo.

“Gela ezberdinak zeuden: batean gainontzeko atxilotuen oihuak entzuten nituen, nire bikotearenak barne, eta bazegoen beste bat, beherago zegoena, erabat isolatua nengoela sentitzen nuena, eta bertan tratua gogorragoa zen. Lehenengoari ‘gela gogorra’ deituko diot eta bigarrenari ‘gela oso gogorra’. Tortura sesio gogorrenak gauean izaten ziren, eta saiatzen nintzen orduak kontrolatzen auzi-medikuaren bisitengatik.

Mehatxuek jarraitzen dute eta komisarioak ziega batean sartzen nau, eta esaten dit ongi pentsatzeko zer egingo dudana. Bertatik ateratzen naute eta auzi-medikuarengana eramaten naute. Gutxi gorabehera, astearteko 20:30 dira. Torturatua izaten ari naizela kontatzen diot. Berriz ere ziegara eramaten naute.

‘Gela gogorrera’ eramaten naute. Han gainontzeko atxilotuen oihuak entzun ahal nituen. Aulki batean esertzen naute eta eskuak bustitzen dizkirate, elektrodoak diruditen soinu batzuk entzuten ditudan bitartean. Esan behar dut, ziegan nengoenean ere entzuten nituela zarata hauek. Hitz egin behar dudala esaten didate, eta arropa kentzen hasten zaizkit erabat biluzik utzi arte. Horrela nagoela ur hotza botatzen didate gainetik. Poltsa jartzen didate, hiru aldiz jarraian. Baina eragitearekin mehatxatzen naute. Biluzik nagoela aulki baten gainean jartzen naute lau hankatan, eta baselina ematen didate ipurtzuluan eta aluan, eta objektu bat sartzen didate. Biluzik jarraitzen dut, eta manta batean biltzen naute eta kolpatzen naute.

Oratzen naute, bultzatzen naute eta lurretik altxatzen naute. Ziegara eramaten naute, berriz ere, asteazken goizera arte; auzi-medikua berriz ikusi arte. Berari kontatzen diot tratuari buruz zerbait, eta auzi-medikuaren jarrera txarra da. Ziegara bueltatzen naiz eta apur bat atseden hartzen saiatzen naiz. Tarte bat pasatu ondoren, komisarioa dator, ziegatik ateratzen nau eta gela ‘oso gogorrera’ narama. Han komisarioak berriz ere biluzten nau. Iletik tiratzen dit, buruan kolpeak ematen dizkit eta belarrira oihuka esaten dit militarra dela eta hiltzeko entrenatua dagoela, eta ‘te voy a destruir toda por dentro para que no puedas tener pequeños etarras’ esaten dit.

Ziegara eramaten naute berriz ere, eta handik auzi-medikuarengana, hirugarrenez. Ez diot ezer esaten aurreko bisitan izan zuen jarrera ikusita, zeintzuetan nik kontatutako tortura testigantza zalantza jarri zuen. Galdeketetan aldiro dago jende asko; behin zazpi ahots zenbatzera heldu nintzen. Nire bikotearekin etengabe mehatxatzen ninduten (nola torturatzen duten entzuten dut).

Gainera, nire neba atxilotzearekin ere mehatxatzen naute. Esaten didate, gainera, tratuerik ez badago nire gurasoak atxilotzeaz gain nire amama ere eramango zutela; ‘en bragas’ dio batek, ‘y me la voy a follar’.

Durangoko Aministrariaren Aldeko Mugimendua

## Odolkiak ordainetan

Munduko populazioaren %20k baliabide naturalen %80 kontsumitzen du, bere garapen ereduak elikatzen. Horrek dakar, beraz, populazioaren beste %80k baliabideen %20arekin konformatu behar izatea. Gainera, agerikoak dira iparraldeko garapen ereduak hegoaldeko herrietan eduki dituen ondorioak, nahiz eta gu bizi garen tokitik eta daukagun ikuspegitik ikusteko errazak ez izan. Hegoaldean ger-

tatzen denak, alegia, ez du gure kontzientzia larregi astintzen. Baina azkenaldian ari gara ikusten gure garapen ereduak gure bizilekuek gertuago ere ondorioak sortzen dituela; orduan sortzen da eztabaida.

“Not in my back yard” (Nimby efektua), dio ingelesezko akronimoak; “ez nire atzeko baratzean”, euskarazko itzulpenak. Askotan, garapen ereduaren eraginak mahai gainean jartzen ditugunean, Nimby efektura mugatzen dira, arazoaren benetako edo sakoneko edukari heldu beharrean.

Euskal Herriko baratzeek ere asko dakite akronimo horretaz. Abiadura Handiko Trena dugu eredu bat. Orain urte batzuk, AHTaren ibilbidea erabaki behar zenean, AHT bai baina “ez nire baratzean” aldarrikatzen zuen hainbat udaletxe: Durango, Iurreta, Abadiño, Atxondo, Elorrio... Hainbat Nimby alegazio aurkeztu zizkieten AHTaren ibilbideari.

Orain, antzeko zerbait gertatzen ari da Durangaldekiko igaroko den Red Eléctrica de Españaren goi-tentsioko linearekin. Durangaldekiko arana erdian geratuko da, AHTa hegoaldean eta hegoaldeko baratzetan, eta goi-tentsioko linea iparraldekoetan. Hor, bitartean, kartzelaratuta geratuko da Durangaldea.

Aralarrek hamaika aldiz adierazi du AHTaren proiektuaren aurka dagoela, proiektu txikitzailea delako eta sekulako diru xahuketa suposatuko duelako, herritarren benetako garraio beharrezkoak asetzeko balio gabe. Aralarrek ere goi-tentsioko linearen aurkako iritzia adierazi gura du orain. Baina gure kritika ez da horretan geratuko. Hausnarketa ez dugu goi-tentsioko linearen ibilbidean kokatzen. Hausnarketa goi-tentsioko linea eraikitzeak arrazoian kokatzen dugu. Eztabaida ez da nondik igaroko den, baizik eta zertarako eraikiko den. Eta Red Eléctricak argi azaldu du: AHTa elikatzen horrelako zerbait behar da. Nongo baratzeak zeharkatuko dituen berdin zaio.

Ekialdetik hegoaldera, hegoaldeko ekialdera, Durangaldekiko iparraldeko eta hegoaldeko baratzeak okupatuta izango ditugu. Eta azpiegitura urbanistiko zein energetiko gehiago izango dugu baldin eta ez badugu eztabaida beste toki batean kokatzen: gizartearen garapen ereduak eta berau elikatzen behar dugun eredu energetikoa.

Beraz, gaur arte izan dugun mugagabeko ereduarekin jarraituz gero, gero eta baratze gutxiago izango dugu: gaur AHTa da; gaur tentsio altuko linea da; bihar Beasain-Gerediaga errepidea izango da; etzi autopistaren 4. karrila; betiko izango ditugu harrobiak gure mendietako harria irentsiz; gaur zentral termikoa dugu Zornotzan, eta bihar etxe alboko baratzean beste bat izango dugu.

Horregatik guztiagatik, garapen ereduaz gain, eredu energetikoa bera aldatzeko premia ere badago. Gaur egun energia sare banaketa zentralizatua dugu eta energia fosilekin, nuklearrekin eta zenbait berriztagarriekin elikatu dugu. Eredu hori errotik aldatu behar da: hasteko, garapen eredu mugatuz, aurrezte lehenetsiz, energia beharrezkoak baretu behar dugu; gero, energia berriztagarriez elikatutako ereduaren aldeko apustua egin behar du, planifikazioa, produktzioa eta banaketa, neurri handi batean, maila lokalera ekarriz.

Dani Maeztu, Aralarreko zinegotzia Durangoko udaletxean

## Bonbardaketaren errudunak

Antza denez, nabarmena da italiarrek bonbardatu zutela Durango 1937ko martxoaren 31n. Bonbardatzeaz gain nola txikitu zuten ere jaso zuten italiarrek. Eta dokumentazioa Ufficio Storico dello Stato Maggiore del Aeronautica Militare delakoaren artxiboan gorde dute. Ondo gorde, gainera.

Ez al da garaia heldu erantzukizun politikoak eskatzeko? Ez diote barkamenik eskatu behar Durangoko herriari? Eta guk ez diogu ezer eskatuko? Gure erakundeek ez lukete zerbait pentsatu beharko kontu honetaz?

Andoni Barreña - Berriz

## Sei hankako mahaia



Juan Jose Gaztañaztorre PP

## Lehentasuna, herritarrek

Onartu egin dira 2011ko aurrekontuak, eta bai: gure aldeko botoarekin onartu dira.

Zirriborroaren gainean aurkeztu genituen proposamen gehienak onartu egin ziren gobernu taldearen aldeko tasunarekin, urte askoan lehenengo biderrez, herritarren interesak aurretik jarri ditugularik, beharbada izaera politikoagoak ziren beste batzuen aurretik.

Baina, nola ez jokatu modu horretara, gure proposamenei esker, JAED eta Caritasentzako diru kopurua handituko badugu, nagusieki lagunduko badiegu katerin sozial bat sortuz, merkatarien eta ostalarren beharrezko asetuko baditugu, jailetarako inbertsioak txikiagoak ez izatea lortuko badugu, herritarren segurtasunaz arduratzen direak hezteko kanpainak burutuko baditugu Internetekin zerikusia daukaten delitu berriei eraginkortasunez aurre egiteko, sentsibilizazio kanpainak burutuko baditugu gure arteko gazteek errekurtso gehiago izan ditzaten eta tresnak eskuratu ditzaten drogari ezetz esateko, auzo bat edo beste haur jolasetarako azpiegiturak hobetuko baditugu, ume minusbaliatuen familiei lagunduko badiegu, gazteek bullinga zein ziber-jazarpena salatu ditzaten doako telefonoa sortuko badugu...

## Guri esker talderik ahulenek, behar larriena daukatenek, bizi kalitatea hobetuko dute

Azken batean, garai ilunak zetozen, eta pozez betetzen gaitu jakiteak guri esker talderik ahulenek, udal administrazioaren laguntzaren beharrik larriena daukatenek euren bizi-kalitatea hobetu ahal izango dutela eta aurrera egin, eta eurekin batera Durangok ere bai. Hori izan da, da eta izango da beti gure helburu nagusia.

\*Erredakzioan itzulia

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

**anboto**  
durangaldekoko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak  
2011ko apirilaren 1a - 10. urtea - 410 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaito Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak:

**Erredakzio burua:** Joseba Derteano.

**Administrazio burua:** Itziar Belar

**Administrazioa:** Miren Abasolo.

**Publizitatea:** Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Aritz Maldonado.

**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.

**Testu zuzentzailea:** Igor Elortza.

**Argazkilaria:** Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

LITERATURA > IPUIN-KONTALARIAK

## Ahotsaren musikaltasuna, keinuak eta begiradak dira ipuin-kontalariaren arma indartsuenak

AEK-k antolatuta, Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan, **Ipuin BEROtikoak** kontagintza saioa eskainiko du Kandelen Argipean taldeko Begoña Alabazanek. *Le petit chaperon rouge*, *Aberia* eta *Para cuatro manos* idazkietatik hautaturikoak dira apirilaren 6an, 10:30etik aurrera, Durangoko Liburutegian entzuleei eskainiko dizkienak

**Zer da Durangoko emanaldira dakarazuna? Noiztik egiten duzue emanaldi hau?**

Oraingoan dakardan saioari *Ipuin BEROtikoak* izenburua jarri diot; itxaroten dut dudarik ez geratzea zein entzulegoari zuzenduta dagoen; izan ere, askotan "ipuin" entzun eta automatikoki umeentzako saioak direla pentsatzen dugu. Saio hau Kandelen Argipean taldekoon artean egiten dugu aspalditik, oinarritzko planteamendu beragaz, baina euskarazkoan neuk bakarrik egiten dut: irudimena da sexu-organurik indartsu eta baliotsuena, eta sarritan gutxien lantzen duguna.

**Durangoko azkeneko azokan erotismoa hartu zuten gaitzat...**

Bai, Joxe Mari Karrera izan genuen bertan kontalari, eta oso altu utzi zuen langa. Batez ere, umeentzako ipuinei buruz dihardugunean bestelako gaiak datozkigu burura, baina, zelan edo halan, sexua beti agertzen den gaia da, gizakiok oinarrian sexualak garelako. Egia da, hala ere, ez dela hain zuzenean berba egiten gai honetaz, eta hortik datorkie arrakasta saio hauei.

**Hiruidazkitano inarritutakoada eskainiko duzun saioa. Zeren arabera aukeratu dituzue saioetarako ipuinak?**

Aukeraketa egiterakoan oinarritzkoa da zu zeu eroso sentitzea istorio hori kontatzen, eta ipuin hori kontatzeko gogoia izatea; enkarguzkoak ez dira ondo ateratzen. Kontalarion artean askotan esaten dugun moduan, "ipuinak kontatzen zeure buruari buruz ere

jarduten duzu". Hau da, kontatzen dituzun istorioak, nahiz eta jatorrian zureak ez diren testuetatik arnasa hartu, kontatzen zeure egiten dituzu, zeure izaera, pentsaera eta bizitzaren detaileak ere nahitaez agertzen direlako.

**Emanaldiaren sinopsirako *El Gran Wyoming-en aipu bat hartu duzue*; *"larrua jotzea bekatu baino, mirari" dela dio. Umoretik ere badu emanaldiak?***

Noski, sexuaz edo beste edozertaz berba egiteko modurik onena da umorea; baina hori bai, seriotasunez. Bromak aparte, kontatzen ondo pasatzen saiatzen naiz, jolastera ateratzen naiz, eta entzuleek hori igartzea nahiko nuke.

**Sexuari buruz berba egiten dugunean, errealitatean baino fantasian jartzen dugula enfasi handiagoa ere esaten duzue. Emanaldian fantasiatik dago gehiago?**

Biluztu egingo naiz eszenan, baina hitzen, begiraden, keinuen eta isiluneen bitartez. Fantasia askoz finagoa eta indartsuagoa izaten da sexu-kontuetan. Eta iraupen luzeagokoa ere bai.

**Askotariko gaiak eta hainbat adineko entzulegoari zuzendurikoak jorratzen dituzue: umeentzako eta helduentzako jardutea zertan da desberdina?**

Umeentzako, helduentzako eta publiko zabalarentzako ipuinak daude. Umeekin gertutasuna kontu handiz zaindu behar da: saioak ezin dira talde handietan egin, ezta arreta bideratzen ez duten tokietan ere. Kontalariaren begi-



Begoña, hirugarrena ezkerretik, eta Kandelen Argipean taldeko bere hiru kideak inguruan.

rada zuzen eta gozoa, keinuak eta hitzaren musikaltasuna dira ezinbestekoak umeen arreta erakartzeko. Umeekin prest egon behar duzu egiten dituzten galderak erantzuteko. Orokorrean, saio malguagoak izaten dira umeentzakoak; umeen adinaren arabera ipuinak trukatu ditzakezu.

Helduentzat jardutean, berriz, finkoagoak izaten dira istorioak, saioa borobilduago dagoelako

**“Sexuaz zein beste edozertaz berba egiteko modurik onena da umorea”**

aukeratutako gai baten inguruan: gure *Ipuin BEROtikoak* saioan legez, kasurako.

Taldeak handiagoak izan daitezke helduen kasuan, baina nagusiekin ere, kontalariaren begirada zuzena eta gozoa, keinuak eta hitzaren musikaltasuna ezinbestekoak dira, umeekin moduan. Pena den arren, umeek ez bezala, nagusiek gehienetan ez dute galderarik egiten. ■ I.Esteban.

## Zaletasuna ogibide bihurtu dute Kandelen Argipean

1996an Bilbon sortutako taldea da Kandelen Argipean izenekoa, ipuin kontalaritza landuz "hasierako helburua, besterik barik, lagunartean ondo pasatzea" zena; eguazten goizean Durangoko Liburutegian saioa eskainiko duen Begoña Alabazanek dioenez, "zaletasuna ogibide bihurtu dugu, eta orain serioago jar-

duen dugu". Oraindik ere hasierako olgetako espiritua mantentzen dutela ere nabarmendu digu, edozelan ere, Begoña.

Ipuin kontalaritza saioez gainera, ipuin kontalaritza ikastaroak, irakurzaletasuna sustatzeko edo ipuinak sortzen ikasteko tailerrak gidatzen dituzte Kandelen Argipean taldeko

Begoña Alabazan, Anabel Muro, Joaquín Ponte eta Pedro Ruizek.

"Txikitari jaso nituen ipuinek egarri utzi nindutenez, gaztetan istorio, ipuin eta abestiak edateari ekin nion; geroago ezagutu nuen neregantutako istorio horiek kontatzen sentitzen den gozamina", kontatu digu Alabazanek. Helduentzako euskara eskolak ematen jardun zuen zenbait urtez, eta, esan digunez, bertan ere trebatu zen kontaktan. Orduetik, ipuinak narratzeari ekin zion buru-belarri.

MUSIKA > ABESBATZA

# San Petersburgoko kaperako abesbatzaren bisita Elorrion

Apirilaren 8an, Elorrioko basilikan jardungo du San Petersburgoko kaperako abesbatzak

**E**liz musika errusiarra eta Errusiako kanta folklorikoak eskainiko ditu San Petersburgoko kaperako abesbatzak datorren barikuan, Elorrion. 1936an Leningradon jaiotako Vladislav Chernoushenko zuzendariaz dator Errusiako abesbatza Durangaldera. Elorrioko basilikan, 20:00etan hasita eskainiko dute kantaldia.


Historia luze eta oparokoa da San Petersburgoko abesbatza: Iván II.aren agintaldian, XV. mendean

sorturikoa da, eta Errusiako lehenengo abesbatza profesionala izan zen. Mendeetan, inguruko herrialdeetako –besteak beste, Ukrainako– abeslariak erakarri izan ditu San Petersburgoko taldeak.

Errusiar tradizioko kantak eta eliz musika uztartuko dituzte

Historia luzeko taldea izanik, sasoian sasoiko gizartearen eta Errusiaren historiaren isla ere bada San Petersburgoko abesbatza. Besteak beste, emakumeen eta bakar-lari garrantzitsuen ahotsak hartzea, eta askotariko sortzaileen musikak interpretatzeari ekitea lako berrikuntzak egin dituzte.

Errusiako abesbatzarik onentzat aurkezten dute San Petersburgoko hau aditu askok, eta munduko onenen artean kokatzen duenik ere badago. ■ I.E.



ZINEMA > EMANALDIA

# Laburbira zirkuituaren barruko zine-emanaldia Plateruenean

Berbaro elkarteak antolatu du Laburbira film laburren zikloaren apirilaren 7ko emanaldia

2009an eta 2010ean ekoitziriko sei film laburren hautaketa bat eta Topagunea Euskara elkartearen federazioak sortzaile berrien lana bultzatzeko antolatzen duen Kameratoia lehiaketaren aurten-go parte-hartzaileen hiru lanen emanaldia egingo dute, apirilaren 7an, Berbaro elkarteak antolatuta, 20:00etan, Plateruenean.

Kameratoia lehiaketako irabazleekin batera, iaz eta 2009an ekoitzitakoak

le berriak kontuan hartzeko ahalgina” egin dute. Besteak beste, Asier Altuna eta Angel Aldarondo lako zuzendari ezagunen lanak eta hasiberriagoak diren beste hainbat sortzaileen lanak ere ekarriko dituzte, Euskal Herrian azken urte biotan ekoitziriko film laburren erakusle. ■ I.E.

Apirilaren 7an  
20:00etan emango  
dituzte bederatzi lanak

Zortzigarren urtea da Topaguneak Laburbira zikloa sustatzen duena, eta horregaz bat eginda aurkeztuko dituzte aipatutako bederatzi film laburrak Durangon ere. Martxo erdialdetik apiril erdialdera arte, beste 25 herritan ere burutu dituzte honen antzeko beste emanaldi batzuk, eta emanaldi berezia egin dute, aurten, Londresko Euskal Etxean ere.

Plateruenean ikusgai izango diren filmak hautatzeko, antolatzaileek nabarmentzan dutenez, “ibilbide luzeko egileak eta sortzai-



Asier Altunaren irudiko ‘Artalde’ lana eta beste zortzi film labor eskainiko dituzte.

Jose Julian Bakedano  
Zinegilea



## Jorge Semprún eta Lekeitio

Madriren, 1923an jaio zen Jorge Semprún. Euskal Herrian bizi izan zuen Gerra Zibilaren hasiera gazte zela, eta bertatik erbesteratu zen bere familiagaz, 1939an, Parisera. Okupazio alemaniarren erresistentziako kide zela, atxilotua, torturatua eta Buchenwald-eko konzentrazio esparrura bidalia izan zen. Aske utzi zutenean, Alderdi Komunistaren erbesterako kide egin eta ekintza klandestinoei ekin zien. PCETik kanporatu zuten Fernando Claudín-ekin batera 1964an, eta *El largo viaje* lanagaz abiatu zuen bere ibilbide literarioa urte horretan bertan. Ordutik, literatura eta gidoi zinematografikoetan jarri izan du bere arreta guztia. Ez zuen berriro politikan jardun, 1988an, Felipe González-en gobernuan Kultura ministro izendatu zuten arte.

1931n Susana Maura ama hiltzean, Lekeitio aukeratu zuen udaldia igarotzeko leku legez Semprún Maura familiak. “Zubiko etxean”, Ondarroarako errepidearen ondoan, lau udaldi igaro zituen Semprún familiak. Ume garaiak eta Euskal Herrian bizitako hilabeteak gogoratzea gogoko du Semprúnek.

Bere oroitzapenean, Lekeitio eliza, “ia katedral bat”, portu bizia, hondartza ederra, eta zubiaren bestaldeko aldapan gora Mendexa dauzka gordeak. “Elizaren aldamenen frontoia zegoen Mendexan. Udatiarrak ez ziren bertara hurreratzin, eta beti zegoen pilotan jokatzeko lekua”, oroitzen du. “Oso pilotazaleak ginen anaiok, eskuz aritzen ginen: oraindik gogoan ditut eskuak handituta esku-larru baten antzera ipintzen zizkiguten partida haiek...”

1936ko irail bukaeran, Lekeitiotik gero eta gertuago zeuden frankistak. Borroka burrunba gero eta gertuago zuten, eta errefuxiatuak ailegatzin ziren kostako bidetik. Errefuxiatuak gero eta gertuago herrietatik zetozen. Donostia jauzi eta gero, Bilborantza egiten zuten jendeak ihes. Gau batean Ondarroatik ailegatu ziren; “hurrengo goizean Bilbora joan ginen”. Udaren amaiera eta erbeste luze baten hasiera zen. Hauek bezalako oroitzapenak jasotzen ditu 1977an kale-ratu zuen *Autobiografía de Federico Sánchez* liburuan.

\*Erredakzioan itzulia

MUSIKA > EMANALDIA

## Durangoko Tabira banda Ezkurdiko kioskoan, apirilaren 3an

Miguel Arbelaiz San Román zuzendariaren batutaren aginduetara jardungo du Tabira musika banda, apirilaren 3an, 19:00etan Ezkurdiko Kioskoan. Xabier Amurizaren letra eta Jesús Eigurenen musika daukan Alpin Tabira klubaren ereserkiaren emanaldiaz zabalduko dute domekako emanaldia eta, besteak beste, Beethoven edo Cole Porter konpositoreen obrak interpretatuko dituzte.

Amurizaren letra eta Eigurenen musika daukan kanta entzungai

Orain urte bi burutu zituzten Ezkurdiko musika kiosko berrizteko lanak, besteak beste, argiteria sistema eta kupula ere eraberrituz. Hain zuzen ere, Durangoko Tabira musika banda izan zen 2009an kiosko berri-tua inauguratu zuena.

Mende bat baino gehiagoan, 105 urtean, Durangoko musika bandaren emanaldietarako eta dantzaldietarako gunea izan da Ezkurdiko kioskoa, XX. mende hasieran eraiki zutenetik. ■ I.E.

PELIKULAK

Maritxu

Kepa Errasti

Artalde

Asier Altuna

Ondar ahoak

Angel Aldarondo

Sartaldea

Jon Artola

Esku-titi

Saioa Aizpurua

Black Postcards

Aitor Artola, Irune

Gurtubai eta Ibai

Vigil-Escalera

KAMERATOIA 2010

Biak bat

Barrura begira

Nire bista faboritua



### Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio  
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.  
Pintxoak.  
Eguneko menua.  
Menu bereziak.  
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



### Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta  
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.  
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.  
Razioak terrazan.



### Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz  
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.  
Karta.  
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




### Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a  
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.  
Taldeentzako menu adostuak.  
Askariak.

# Jatetxe gida



### Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz  
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko.  
Arrain errea kartan.  
Eguneko menua: 8 euro



### Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz  
Tel.: 94 682 40 77

Karta.  
Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.



### Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio  
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.  
Astelehen eta astearte gauetz itxita.  
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro



### Goiuria Jatetxea

Goiuria auzoa, 21 Iurreta  
Tel.: 94 681 08 86

Jatetxe guztiz berriztua. Eguneko menuak. Asteburuko menu bereziak.  
Karta. Ospakizunetarako menuak: ezkontzak, enpresa bazkariak, ...  
Aurrekontu guztietarako menuak.

ANTZERKIA > EMANALDIK

**D**urangaldean, apirilaren 8an Elorrioko Arriolan eta 10ean Durangoko San Agustinen, izango da Maratonianos eta Tal y Cual Producciones taldeek ekoitzirik *Razas* obra ikusgai. Obrako aktoreen zerrendan, besteak beste, Toni Cantó antzezle valentziarra dago.

Abokatu talde bat protagonista duen antzezlan da datorren asteburuan Durangaldeko antzoki biotan eskainiko dutena: azpijokoari buruzko thriller bat da; pertsonaiek pentsatzen dutenaren eta esaten dutenaren arteko aldea bistan uzten duen lana.

Obrak aurrera egin ahala azaleratzen doazen "egiek" ondorio latzak ekarriko dituzte. Pentsa-

Abokatu talde bat protagonista duen obra da Cantó-ren 'Razas'

Pertsonaien erretratu gordinagaz, errealitatea "gupidagabe" islatuz

# 'Razas' antzezlan ikusgai datorren astean Elorrio eta Durangoko antzokietan

Apirilaren 8an Arriola antzokian eta 10ean San Agustin kulturgunean eskainiko dute Maratonianos eta Talycual-en lana



tzen eta esaten denaren arteko distantzia horrek islatzen ditu Madrilgo taldearen lanean egungo gizar-tearen joera ilunenak.

Neska beltz bat bortxatzea egotzi dioten negozio-gizon dirudun eta azal zuriko baten defen-

tsarako eskaera jasotzen dute obraren hasieran abokatu bulegoan. Kasuaren lanketa da antzezlanaren garapena dakarrena; istorioak aurrera egin ahala joaten da oholtzaratzen pertsonaiek barruan daramatena; ezkututzen dutena.

David Mametsortzailearen "azkeneko probokazio" legez aurkeztu dute obra. "Pertsonaien erretratu gordinagaz errealitatearen desdribapen gupidagabea" burutuko dute, datorren asteburuan, Elorrioren eta Durangon. ■ I.E.

Pertsonaiek pentsatzen dutenaren eta esaten dutenaren aldeari buruz

ANTZERKIA ETA DANTZA > IKUSKIZUNAK

# 'Ecografías' amatasunari buruz, eta 'Mintzo' tolerantziaren inguruan

Gaur, apirilaren 1ean, 21:00etan, Zornotza Aretoan da Makiescenica taldearen 'Ecografías' lanaren emanaldia; apirilaren 3an, dantza garaikideak beteko du Durangoko San Agustin



Ramón Bareak zuzentzen duen 'Ecografías' antzezlan eskainiko dute Zornotzan gaur.

Karmele Jaioren testu batetik abiatuta sortutako ikuskizun multimedia da Makiescenica taldeak gaur, 21:00etatik aurrera, Zornotza Aretoan eskainiko duen eta ezkerreko argazkian jaso dugun *Ecografías*. Ramón Barea aktore ezaguna da lanaren zuzendaria eta Irene Bau antzezlea.

"Amatasunaren erraietara bidaia" legez aurkezten dute sortzaileek ikuskizuna, eta sinopsian azaltzen dutenez, "neskatotxo bat adoptatzera Addis Abebara abia-

Karmele Jaioren testu batetik abiatuta sortu dute 'Ecografías'

Lau koreografo gazteren 'Mintzo' ikuskizuna domekan San Agustinen

tzen den emakume baten oroitzapenen eta sentimenduen inguruko testua" da haria. Bere baitarako bidaiaren kontakizuna.

Durangoko kulturgunetik asteon plazaratu duten egitarauan jaso dutenez, maiatzean Durangoko San Agustinen ere ikusgai izango da *Ecografías*.

**Domekan dantza**

Asteburu honetako San Agustingo eskaintzak, berriz, dantzagaz dauka zerikusia. Dantza konpainiaren *Mintzo* ikuskizuna ekarriko dute apirilaren 3an Durangoko antzokira. Sarritan hizkuntzak berak baino gehiago eta hobeto adierazten duen gorputzaz, kezke eta mesfidantzez diharduen lana da domekan, 19:00etan hasita, gozagai izango duguna.

"Elkar-ulertzea, mestizajea eta tolerantzia gorai patzen dituen poema ikusgarria" da Sophie Antoin, Hilde Koch, Eric Gauthierrek Ballet eta Jone San Martín koreografo gazteek eskaintzen duten *Mintzo*. ■ I.E.

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

APIRILAK 1 21:00etan  
**ROCK IZAR ESKOLA** MAKETA LEHIAKETA FINALA. Sarrera doan

APIRILAK 2 22:00etan  
**EL COLUMPIO ASESINO** KONTZERTUA. Sarrera: 10-12 euro

APIRILAK 7 20:00etan  
**LABURBIRA 2011** ZINEA EUSKARAZ. Sarrera doan

APIRILAK 8 21:30ean  
**ENTOMBED + VORTICE+ADRIFT+ NEILA+LEGEN BELTZA.** Sarrera: 18-22 euro

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**MINTZO**  
Dantza konpainia

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

Apirilak 3 • 19:00

**MINTZO**

Liburudenda

Tf.:94 601 07 76 Artekale, 14 DURANGO

# KIROLAK >

## “Sahararentzako gaitza da kirola egitea; ez daukate azpiegiturarik”



Esperientzia “gogorra” izan arren, itzultzeko asmoa duela adierazi du Luisa Oleagak (16 urte, Durango).

**Saharako Errepublika aldarrikatu zutenetik 35 urte igaro dira. Urteurrena ospatu eta elkartasuna adierazteko antolatzen den maratoian eskualdeko hainbat lagunek parte hartu dute, tartean, Luisa Oleagak.**

**Saharako maratoian parte hartzen duzun lehenengo aldia izan da? Zer moduz?**

Bai, lehenengo aldia izan da, eta oso gogorra iruditu zitzaidan.

**Eskualdeko zenbat lagun joan zineten?**

Guztira, eskualdeko bost lagun joan ginen: hiru durangar, Cristina Muñoz (ama), Alba Oleaga (ahizpa) eta hiruok; Mallabitik, berriz, Dorleta Landa eta Ainhoa Solozabal etorri ziren. Euskal Herritik 37 pertsona joan ginela uste dut. Mundu osoko jendea joan ohi da.

**Zer moduzko bidaia izan zen?**

Maratoia otsailaren 28an izan zen, baina, guztira, astebeteko bidaia egin genuen. Alde batetik, gogorrek egin zitzaizkidan han igarotako zazpi egunak, batez ere, bertan bizi duten egoeragatik; horrek hunkitu egin ninduen, ez nuen pentsatzen hain txarto bizi zirenik.

Hala ere, primeran hartu gintuzten. Ezer ez eduki arren, oso eskuzabalak dira. Familiakoak izango bagina moduan hartu gintuzten.

**Lasterketa bera, bereziki gogorra egin zitzaizun? Ohituta zaude horrelako probetara?**

Lekeitio eta Ondarroa arteko lasterketa bat egin nuen behin, baina ezin da konparatu. Hango 20 kilometro hemengo 40 lakoak dira. Oso gogorra egin zitzaidan, batez ere, beroagatik; une batzutan 40 gradura iritsi zen hango beroa. Harean korrika egitea, gainera, oso gogorra da, asko nekatzen du; oso gaizki amaitu nuen Saharako maratoia, eta erdi zorabiatuak, hango medikuarengana joan behar izan nuen.

**Zelan animatu zineten Saharako Maratoian parte hartzera?**

Saharan egon naizen lehenengo aldia izan da, hala ere, lehenagotik izan dut tratua sahararrekin. Sei urtez ume saharar bat etxean hartu dugu udan. 12 urte betetzen dituztenean, ezin dira ekarri; iazko udan beste ume bat hartu genuen.

Noiz edo noiz Saharara joateko asmoa bagenuen; Agustina Ibarluzeak maratoia berri eman zigun, eta gu ere animatu egin ginen parte hartzera. Bide batez, etxean hartu izan ditugun

umeekin ere egon ginen. Bakoi-tzagaz hiruna egun.

**Zenbat denbora behar izan zenuen?**

2 ordu eta 44 minutuan egin nituen 21 kilometroak. Amagaz batera burutu nuen proba. Albak, berriz, hamar kilometrokoa egin zuen. 5, 10, 21 eta 42 kilometrotako lasterketak daude, bakoi-tzak ahal duena egin dezan.

**Ze hartu-eman daukate Sahararek kirolagaz?**

Emakumezkoek ez dute kiroliek egiten. Gazteek zer edo zer gehiago. Edozelan ere, oso gaitza da eurentzat, azpiegiturarik ere ez daukate-eta.

**Beharrezko ikusten dituzu horrelako ekimenak?**

Bai. Saharan bizi duten egoera ez da bidezkoa. Hango errealitatea ezagutzera ematea eta ume-

ak hona ekartzea oso garrantzitsua da eurentzat. Norberarentzat esperientzia oso aberasgarria da, baita; gauzei balio handiago ematen ikasi dut. Han ezer gutxigaz konformatzen dira; guk, ostera, denetik daukagu eta gehiago gura dugu, oso geurekoiak gara.

“Oso gogorra egin zitzaidan, batez ere, beroagatik; 40 gradura heldu zela esan ziguten”

**Itzultzeko asmorik badaukazu?**

Noiz edo noiz itzuliko naiz, hori seguru. Dena dela, ez dakit maratoia berriz egingo dudan! Egitekotan, hamar kilometrokoa egingo dut. ■ A.Maldonado



## Udaberriko Golf Txapelketa jokatu dute bihar Diman

Bihar, apirilaren 2an, Udaberriko Golf Txapelketa jokatu dute Dimako golf zelaietan. 2011ko rankingerako puntuagarria da txapelketa hori. Izena emateko epea hasita dago, eta 20 euro ordaindu beharko dituzte parte hartu gura duenak.

Horrelakoetan ohi denez, hiru maila ezarriko dituzte; mailaketa parte-hartzaileen handicaparen arabera izango da. Joko mota, berriz, Stableford izango da. Txapelketa hori 2011ko rankingerako puntuagarria da. Aurretik, Inauterietako Txapelketa eta Txotx txapelketa jokatu dituzte Dima Golfen, besteak beste. ■ A.M.

## EHko Itzulia Durangaldetik pasatuko da

Aste honetan aurkeztu da Euskal Herriko Itzuliaren ibilbidea. Txirrindularitza proba horretako bi ibilbide Durangaldetik igaroko dira. Itzuliko 4. etapan, apirilaren 7an, Durango, Abadiño eta Elorrio zeharkatuko dituzte txirrindulariek; 14:30ean inguruan igaroko dira Durangotik Elorriorantz. Kanpazar eta Karabieta igo ondoren, berriz itzuliko dira Durangaldera; Elorrio, Berriz eta Zaldibar igaroko dituzte. 5. etapan, 12:55 inguruan, Areitio igo eta gero, Urkiolara abiatuko dira txirrindulariak, atzean Zaldibar, Berriz, Abadiño, lurreta, Durango eta Mañaria utzi eta gero. ■ A.M.

## Nagusientzako pilota txapelketa antolatu dute

Berriotxo pilotazale elkarteak binakako pilota txapelketa antolatu du Elorrioko zein bertan bizi diren nagusientzat. Izena emateko epea apirilaren 10ean amaituko da; txapelketa maiatzean hasteko asmoa agertu dute antolatzaileek.

Txapelketan parte hartu ahal izateko, pilotariak 40 urte izan behar dituzte, gutxienez; bikoteko kideen adinen batuketara 100 urte baino gehiagoko izanez gero, penalizazioa izango dute. Izena emateko 30 euro ordaindu beharko dira; astelehenetik eguenera bitartekoa da epea. ■ A.M.

# Iurretako 31. Hiri Froga domekan jokatuko dute

Bidezabal atletismo taldeak antolatu du froga, Iurretako Udalgaz batera. 10:00etatik aurrera jokatu da hainbat mailatako lehia



Iazko moduan, maila handiko ikuskizuna eskainiko dute Iurretako kaleetan.

Igandean, apirilaren 3an, Iurretako Hiri Froga ospatuko da 31. biderrez. Korrikalariet egutegian nabarmentzen duten proba da Iurretakoa; goi mailako hainbat kirolarik eman dute izena jada. Bidezabal taldearen arabera, Iurretako proban egongo dira, besteak beste, Europako txapelduna den Manuel Olmedo (estaltitako 1.500 metroetan), eta Jesus España (Europako txapeldunordea 5.000koan). Emakumezkoek dago-kionez, Dolores Checa eta Paula Gonzalez nabarmentzen dira.

Hiri Frogaren 31. edizio honetarako, aldaketa batzuk iragarri ditu Bidezabal taldeko zuzendari teknikoa den Aitor Casalek. Aipatzekoa da, hiru urteren ondoren, probaren helmuga bere toki naturalean egongo dela; behin obrak amaituta, Bixente Kapanagan ezarriko da proba amaiera.

Horrez gainera, ikusle edo zale gehiago erakartzeko asmo-

agaz, modalitate berri bat antolatu dute 31. edizio honetarako Bidezabalekoek; 'Txupete' deritzon lasterketa mota jokatu da lehenengoz; sei urtez azpikoek 400 metroko ibilbidea burutu beharko dute. 11:50ean hasiko da etxeko txikienei zuzenduriko

'Txupete' deritzon modalitatean ere lehiatuko dira aurten

Olmedo Europako txapelduna Iurretako Hiri Frogan egongo da

proba hori. Lasterketa horretan zein gazteentzako lehiaketetan parte hartu ahal izateko, egunean bertan eman ahalko dute izena korrikalariet. Horien proba 10:00etan hasiko da.

Nagusien probak, berriz, geroago hasiko dira. Emakumezkoena 12:00etan hasiko da; 5.000 metro egin beharko dituzte. Gizonezkoek, berriz, 10 kilometroko ibilbidea burutu beharko dute Iurretako zirkuituan; proba hori 12:30ean abiatuko da. Irabazleentzat, aintzatespenaz gainera, sari ekonomikoak ere egongo dira.

Aurretik aipaturiko korrikalariet gainera, Bidezabal taldeko hainbat kidek ere parte hartuko dute Iurretako proba honetan. Besteak beste, talde durangarreko kide diren Margarita Fuentes, Ana Isabel Gutierrez, David Garcia eta Diego Fernandez lehiatuko dira Iurretako Hiri Frogan. ■ A.M.



Herritarren animoak jaso zituzten duatloilariet. Kepa Aginako

## Martinez eta Frades garaile V. Duatloian

Eguraldia lagun, giro polita nagusitu zen Durangoko kaleetan probaren 5. edizioan

Javier Martinez Rubiok (Camargo) irabazi du Durangoko V. Duatloia. Zapatuan jokatu zen lasterketan, kantabiarra izan zen lehenengoa helmuga zeharkatzen; 1:51:31 behar izan zituen proba amaitzeko. Emakumezkoetan, berriz, Gurutze Frades (Mugarra) iurretarra izan zen garaile; 2:07:30 behar izan zituen ibilbidea burutzeko.

## Adituarentxokoa

Unai Zamalloa  
•Saskibaloia entrenatzailea



### Uzta jasotzen hasita

Saskibaloian martxo eta apirila bitartean momentu erabakior asko ematen dira, eta talde askok, egun hauetan jokatu dituzte beraiantzat garrantzitsuak diren gauza asko. Urtean zehar ereindako-aren uzta jasotzen hasten dira udaberrian.

ACB ligan, adibidez, titulurako play offetarako postu onenetan sailkatzeaz gainera, Caja Laboral Baskoniaren eta Bizkaia Bilbao Basketen kasuan Europarako txartelak ere jokoan daude; bilbotarrentzat, hau ezinbesteko helburua izanik. Lagun Aro Gipuzkoa Basket, ostera, ez gora ez behera, duintasun osoz bukatzeko lanetan arituko da, hurrengo denboraldian, goragoko helburuak lortzeko.

Euroligan, egunotan ari da erabakitzen maiztaren 6tik 8ra bitartean Bartzelonan jokatu den Final Fourerako nortzuk sailkatuko diren. Idazten ari naizen momentuan Baskoniak 21 puntuko jipoi jaso du Tel Aviven, eta hurrengo partidua irabazi beharko du bosgarrena jokatzeko nahi badu Gasteizen. Nik, beharbada, sarrerak erreserbatuko ditut, konfiantza osoa dudalako. Ia asmatzen dudan!

Hurbilago etorrita, EBA liga bukatu da gure taldeentzat. Tabirakok azken postuan amaitu du, 4 garaipekin denboraldi zaila sufrituz, eta Zornotza 4. postuan sailkatu da, jaitsierako postuak ondo ekidinez eta ozta-ozta igoerako faserara sartu barik; denboraldi bikaina borobildu dute zornotzarrek. Orain Galizian jokatu dute A taldeko postuak argitzeko Cambadosen aurka.

## Aukera ona du Elorriok berriz goikoei lotzeko

Elorrioko Buskantzak Txanpaka taldearen kontra jokatu du etzi, domekan, etxean

Nazional B mailan, taula erdialdean dago Elorrioko Buskantzak; etzi, domekan, Txanpaka taldea hartuko du etxean, eta

Jokoan egon diren azken 12 puntuetako hiru eskuratu ditu Elorriok

berriz ere gora begira jartzeko aukera ona izan daiteke. Bide batez, martxo beltza atzean utzi eta bolada on bati ekiteko abagunea ere izan daiteke; martxoan jokoan egon diren 12 puntuetako hiru bakarrik poltsikoratu dituzte. Aurreko jardunaldian porrot latza jaso zuten Santurtzin; 14-2 galdu zuten San Jorgeren aurka. ■ A.M.

Ia 300 kirolarik parte hartu zuten zapatuko duatloian; horietako 13 emakumeak ziren

Mugarra triatloi taldeak antolatutako proban ia 300 kirolarik parte hartu zuten; hauetako 13 emakumeak ziren. Taldekako sailkapenari dagokionez, Debagoienako Antxintxika taldea izan zen lehenengoa. Guztira, 53, 2 kilometroko ibilbidea burutu behar izan zuten parte-hartzaileek. Horietako 39,2 km bizikletaz egin zituzten.

Duatloiaz gain, Mugarra triatloi taldekoek egun osoko gitaraua antolatu zuten, batez ere, kirol hau herritarrei hurbiltzeko asmoagaz; besteak beste, spinning erakustaldia egin zuten. Ezkurdi jai-gunea ere ezarri zuten Mugarraoek, eta eguraldia lagun giro polita egon zen Durangoko kaleetan. ■ A.M.



# Futbol entrenatzaileak euskaraz trebatzeko ekimena aurkeztu dute

Aholkularitzan adituak diren Itzarri enpresako kideek zuzenduko dute entrenatzaileen eskola, eta Berbaro elkartearen laguntza izango dute. Futbola eta euskara uztartzen ditu egitasmoak.



Ekimena aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten antolatzaileek astelehenean.

**D**urangaldeko gaztetxo-  
nen futbol taldeak euskal-  
duntzeko asmoagaz, entrena-  
tzaileak euskaraz trebatzeko  
eskola jarri du abian Itzarri enpre-  
sak; eskualdeko Udalen, Merinal-  
dearen Amankomunazgoaren eta  
Berbaro elkartearen laguntza izan-  
go dute.

Antolatzaileen berbetan,  
kirola eta aisialdia euskaldun-

**Futbol entrenamenduei  
buruzko formakuntza  
teorikoa eta praktikoa  
eskainiko dute, euskaraz**

tzeko urratsa izan gura du eki-  
men horrek. Bere funtsa futbol  
entrenamenduei buruzko forma-  
kuntza teoriko eta praktikoa  
euskaraz eta euskararen erabi-  
lerara zuzendurikoa izatea da.  
Athleticeko jokalaria eta Itzarri-  
ko kidea den Koikili Lertxundik  
asteleheneko prentsaurrekoan  
adierazitakoaren arabera, eus-  
kara eta gozamina uztartu egin

behar dira, eta horretarako fut-  
bola oso baliagarria da. Hasiera  
batean, ekimena futbol entrena-  
tzaileentzako prestaturik dago-  
en arren, aurrera begira beste  
kirol batzuei ekiteko asmoa ere  
agertu dute antolatzaileek.

Eskolari dagokionez, zortzi  
hileko iraupena izango du, eta  
hiru fasetan banatuko dute.  
Lehenengoa, apiriletik ekainera  
bitartekoa izango da. Bi orduko  
12 saio teoriko jasoko dituzte  
entrenatzaileek. Saio praktikoa,  
berri, datorren denboraldi  
hasieran izango dira, iraila eta  
urria bitartean, hain zuzen ere.  
Hirugarren fasea, berri, jarrai-  
pen fasea izango da. Lertxundi-  
ren berbetan, "taldeetan euskal-

Izena emateko, honako  
helbidea ipini dute:  
'euskara.mdurango  
@bizkaia.org'

duntzea bermatzen dela ziurta-  
tzea" da fase horren helburua.  
Durangaldekoa ez da mota  
honetako eskola bakarra. Txo-  
rierrin ere badihardute futbol  
entrenatzaileak euskaraz treba-  
tzen dituen beste ekimen bate-  
an beharrea. ■ A.M.

## Garaipenagaz agurtu du Tabirakok EBA maila

66-74 irabazi zuen De Castroren taldeak Burgosko Unibertsitatearen kontrako lehia

Liga amaitzeko partidua 66-74  
irabazi arren, durangarrek sailka-  
peneko azkeneko postuan buka-  
tu dute denboraldia. Burgosko  
Unibertsitatearen kontra irabazi  
egin zuten durangarrek azken  
partidua, Burgosen. EBA mailan  
egin duen denboraldiko laugarren  
garaipena zen. Tabirakogaz bate-

ra, Burgosko Unibertsitatea  
eta SAB Torrelavega taldeek  
galdu dute maila. Bestalde,  
Zornotzak laugarren postuan  
bukatu du urtea. Denboraldi  
amaieran hauteskundeak dira,  
hori dela-eta, zuzendaritzan  
aldaketak egongo direla  
aurreikusita liteke. ■ A.M.

## Portugaletera, puntuak ekartzeko asmoagaz

Kulturalak Portugaleteko La Floridan jokatuko du domekan, goizeko 11:30ean

Azken bolada onari eutsi eta  
punturen bat poltsikoratzeko  
asmoagaz doaz Axier Intxaurre-  
garen mutilak Portugaletera. Bi  
taldeak sailkapeneko goiko  
postuetan daude, norgehiagoka  
lehiatua izango da, beraz.  
Durangarrek play off postuei  
eusten diete, bost puntuko

aldeagaz. Ezkerraldeko taldea,  
berri, seigarren postuan dago.

Bestalde, aurreko jardun-  
dian 4-1 irabazi zioten duran-  
garrek Lagun Onak taldeari.  
Zuri urdinen golak Xabi Nieto,  
Muxi, Muniozguren eta Erizek  
sartu zituzten. Azpeitiarren gola  
Lurrek egin zuen. ■ A.M.

## Agenda

### FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

#### Berriz - Getxo

Domekan, 11:30ean,  
Berrizburun

LEHENENTASUNEZKO MAILA

#### Elorrio - Trapagaran

Zapatuan, 16:00etan,  
Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA

#### Iurretako - Lekeltio

Zapatuan, 17:00etan,  
Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

#### Abadiño - Bermeo B

Domekan, 11:30ean,  
Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

#### Extremeño - Lekeltio B

Zapatuan, 18:00etan,  
Tabiran

### SASKIBALOIA

KOPA (EMAKUMEAK)

#### Tabirako - Gernika

Zapatuan, 16:30ean,  
Landakon

SENIOR (EMAKUMEAK)

#### Zaldia - Romoko Ezkorak

Zapatuan, 16:30ean,  
Zaldibarren

### ARETO FUTBOLA

NAZIONAL B MAILA

#### Elorrioko Buskantza - Txanpaka

Domekan, 12:00etan,  
Elorrioko kiroldegian

LEHENENGO MAILA

#### Abadiño Lagun - Zamudio

Zapatuan, 17:00etan,  
Berrizburu kiroldegian

#### Elorrioko B - Sumi Muguru

Zapatuan, 18:00etan,  
Elorrioko kiroldegian

BIGARREN MAILA

#### Sapuberri - Sestao B

Zapatuan, 17:30ean,  
Landakon

Dantxari - Venekar Mosal

Zapatuan, 17:30ean,  
Iurretako FPn

PILOTA

BIHARKO IZARRAK

#### - NARBARTO - OIALDE /

Ansotegi - Perez

#### - Mendizabal - Castillo /

Atxotegi - Irusta

Eguenean, 21:30ean,  
Mallabiko pilotalekuan



**JUAN BERISTAIN**  
**NEKAZAL TRESNAK**

**Salmenta eta konponketa**



# AMALURRA>



## 100 arbola landatu dituzte Urkiolan, Foru Aldundiaren ekimenez

**Aldundiak, guztira, 355.000 arbola berri landatzen ditu urtero; 65.078.549 arbola daude, gaur egun, Bizkaian**

**Aldundiko iturrien arabera, "kalkulatuta dago" kilometro karratuko baso batek mila tona oxigeno sortzen duela**

**Basoen Nazioarteko Urtea dela-eta, Peñascal fundazioko ikasle diren hainbat jatorritako 40 gaztek egin dute landaketa**

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eta UNESCO Etxeak (Euskal Herriko UNESCO Zentroa) bat egin dute *Landa dezagun planetarentzat* kanpainagaz. Kanpaina horren bitartez, urtero munduan mila milioi zuhaitz landatu gura dituzte. Ekimena mundu osoan egiten da, eta Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren babesa dauka. Foru Aldundiak, ingurumen arloko hezkuntza, boluntariora eta sentsibilizazioa sustatzeko irabazi-asmu bako erakundeei ematen dizkien dirulaguntzei esker antolatu dira jardura horiek Bizkaian.

Aurten Basoen Nazioarteko Urtea da, eta itxaroten dute kanpainak balio izatea "gizarteak kontzientzia hartu dezan gure ongizaterako dibertsitate biologikoak eta basoak daukan

garrantziaz". Kanpaina horren barruan, Aldundiak "basoak babestu eta zaintzeko" dituen helburuei jarraituz, martxoaren 24an 100 zuhaitz baino gehiago landatu zituzten Urkiolan. Denak espezie autoktonokoak izan ziren eta bertako hazietatik etorritakoak; horretara, "ekosistema birsortuko da eta haren biodibertsitatea areagotzen eta bertako basoa berritzen lagunduko" dutela pentsatzen dute.

### **Azaleraren %60, basoa**

Ekitaldian, 40 gaztek hartu zuten parte; gazteok zortzi herrialdeetakoak dira, eta Peñascal fundazioaren ikasle. Naturarekiko hartu-emana ikuspegi "intelektual eta integratzaile" batetik lantzea dute helburu.

Foru erakundeak, guztira, 355.000 zuhaitz berri landatzen

ditu urtero. Bizkaiko azaleraren % 60 zuhaitzez estalita dago; gaur egun, 130.646 hektarea baso daude. Azken inbentarioaren arabera, 65.078.549 zuhaitz nagusi daude Bizkaian. Kopuru hori, urterik urte, gero eta handiagoa da. Bizkaiko arbola-masa Europako batez bestekotik gora dago; azalera osoaren % 46 dago Europan basoz estalita.

### **Onurak**

Aldundiko iturrien arabera, "kalkulatuta dago" kilometro karratuko baso batek mila tona oxigeno sortzen duela, herriko hektarea bateko arborek sei pertsonak kontsumitzen duten oxigenoa sortzen dutela, eta 20 urteko zuhaitz batek urtean 10.000-20.000 kilometro egiten dituen ibilgailu baten CO2 kopurua xurgatzen duela. ■ M.Onandia.

# Gremioen gida

## ELEKTRONIKA

**URBASA** ELEKTRONIKA  
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA • TB • SOINUA • BIDEOKA • LIBRATIA  
KOMUNIKAZIOA • ANTENA KOLEKTIBOAK • SATELITE BIDEZ • ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango  
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80  
urbasa@urbasatel.com  
www.urbasatel.com

**Panasonic** 

## LORAZAINTZA

*Jardines Patxi Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santukurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

## AROTZERIA

**EGUIA s.l.**  
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46  
Faxa: 94 605 69 06  
Mug.: 669 655 169  
Mug.: 629 587 653



Tobira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

## ARGIZTAPENA

ARGIZTAPEN GREMIOA

### MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com



## DEKORAZIOA

**a-metz**  
[barne] diseinua

Diseinua - Dekorazioa  
Ideiak - Proiektuak 3D  
Legalizazioak - Errefarmak  
Gremioen koordinazioa  
Altzariak - Osagarriak  
www.a-metz.com

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • Durango



## GARBIKETAK

### AZKARGI

GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta alfombrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

## ITURGINTZA

**berriozabaleta**  
Iturgintza • Berokuntza

gremioen koordinatzailea  
jose miguel acedo

mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55  
berriozabaleta@yahoo.es  
48230 Elorrio (Bizkaia)

**sagasta**  
ITURGINTZA

Iñaki Urien Madrazo  
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria  
48220 Abadiño (Bizkaia)  
Mug.: 628 59 98 24

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net

Sotaguren kalea, 3 - ABADIÑO  
Tel.: 94 681 44 74  
Faxa: 94 681 53 74  
urtiaga@elorrio.es

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN DINTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENEA

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com



**Arriandi ITURGINTZA**

Klimatizazioa  
Kalefazioa  
Iturgintza  
Gasa

Arriandi, 16 - behea, 3. atea  
Mugikorra: 607 24 58 54  
Faxa: 94 681 61 58  
48215 Iurreta

Baimendun instalatzailea

# anboto.iragarkilaburrrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaituzte, [www.anboto.iragarkilaburrrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org). Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

**Higiezinak**  
**ETXEBIZITZAK**  
**SALDU**

**Abadiño.** Muntzaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela, sukalde (eskegitokia), balkoia, garajea eta trasteleku. la berria. 615 007 216

**Atxondo.** 82 m<sup>2</sup>. 3 logela, sukalde, egongela eta komun. 2 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua. Berriztua. Altzairuz hornitua. 628 787 835

**Berriz.** Duplex zoragarria. 118 m<sup>2</sup>. 1. sol.: sukalde, komun, egongela, despentsa eta balkoia. 2. sol.: 3 logela eta 2 komun. Trasteroa eta garajea. 327.000 euro. Deitu arratsaldean 680 907 666.

**Durango.** 98 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua, 3 logela, sukalde-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza eta terraza komunitarioak. Altzariz bete eta atek eta zorua aldatuta. Garaje eta igerilekua. Tel.: 655 704 684

**Durango.** Alde Zaharra. 71 m<sup>2</sup>. Kanpoaldera. Altzariz hornituta. 2 logela, egongela, sukalde, komun bat. Guztiz berriztua kanpotik eta barrutik. Berehala bizitzera joateko aukera. 179.000 euro. Tel.: 607 715 353

**Durango.** 94 m<sup>2</sup>. Herriko Gudari plazan. 3 logela, 2 komun, sukalde (eskegitokia), egongela, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona. 336.000 euro. 615 760 801

**Durango.** Martxoaren 8ko kalean. 3 urte. Oso polita. 80 m<sup>2</sup>. 2 logela, 2 komun, sukalde berria eta saloia. 90 m<sup>2</sup>-ko terraza. Kanpora ematen du. Garajea. Tel.: 637 416 438

**Elorrio.** 65 m<sup>2</sup>. Buzkantz kalean. 2 logela, komun bat, sukalde-egongela eta ganbara. Igogailua. Kokapen ona. Eguzkitsua. 94 622 1234

**Mallabia.** Baserria eta 20.000 m<sup>2</sup>-ko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 20:00-22:00 artean deitu. Tel.: 655 702 647

**Mañaria.** Bi logela handi, balkoia egongela eta sukalde handia. Eguzkitsua. Mendira. Toki lasaia. Garaje itxia. Bi solairu. Etxea guztiz hornitua. 615 765 646 (Jabi).

**Zaldibar.** 300 m<sup>2</sup>-ko base-ri berriztua. 28.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Tel.: 625 705 997

**Zaldibar.** 67 m<sup>2</sup>, 3 gela, bainu-gela, sukalde, egongela, balkoia eta igogailua. Tel.: 94 655 0358

**ERRENTAN EMAN**

**Elorrio.** Pisu salgai edo alokagai (abal). 74 m<sup>2</sup>. 3 logela.

Herriaren erdialdean. Trasteleku. Estreintzeko. Tel.: 634 457 201

**Elorrio.** 50 m<sup>2</sup>-ko atiko berria. Logela, komun eta sukalde-egongela. Igogailua. Oso polita. Tel.: 606 043 835

**Zaldibar.** Alde Zaharrean. Bi logela, egongela, sukalde eta komun. Berriztua. Estreintzeko. 660 458 756

**Zaldibar.** Apartamentua alokatzeko da bikote batentzako aproposa. 20:00etatik aurrera: 94 682 73 69

**ERRENTAN HARTU**

**Durango.** Neska langilea Durango edo lurretan alokatzeko pisu bila. 667 923 891

**Elorrio.** Altzariz jantzitako pisu bila nabil, alokatzeko. Tel.: 94 658 2191

**lurreta.** Lagun bi alokatzeko pisu bila dabilza lurretan edo Durangon. Tel.: 675 708 827

**lurreta.** 2 gelako etxea alokatu nahi dit. Igogailuarekin. Tel.: 660 702 203 (ldoia).

**OPORRETAO ETXEA**  
**ERRENTAN EMAN**

**Ainsa (Huesca).** 50 m<sup>2</sup>. Atiko berria. Bi gela, komun, sukalde eta egongela. Polita. Kanpora. Asteburu, aste edo hilera osorako. 630 674 864

**PISUA KONPARTITU**  
**PISUKIDE BILA**

**Durango.** Pisu konpartituzko bi lagun behar dira. Berria eta jantzia. 656 771 662

**LOKALAK**  
**ERRENTAN EMAN**

**Elorrio.** 350 m<sup>2</sup>-ko pabiloia salgai edo alokagai, 60 m<sup>2</sup>-ko bulegoarekin. Prezio interesgarria. Tel.: 634 457 201

**lurreta.** Pabiloia alokagai Arriaundiko industrialean. 150 m<sup>2</sup> behe. 120 m<sup>2</sup> goia. Tel.: 657 794 552.

**GARAJEAK**  
**SALDU**

**Durango.** Garaje itxia Tronperri kalean. 628 787 835

**Elorrio.** Garaje itxia Berrio-Otxoa kalean. 658 759 264

**ERRENTAN EMAN**

**Durango.** Garaje plaza alokairuan herri erdi-erdian. Intesatuak deitu: 619 187 799

**Durango.** Garajea alokagai San Inazio auzunean, Prodan. Tel.: 635 743 624 (Inaki)

**Durango.** Plateruen plazan garajea alokagai. 65 euro hi-

leko. Tel.: 635 735 759 (Josu)

**Elorrio.** Garaje itxia alokagai kotxea eta trasteentzako. Nizeto Urkizun. 660 45 87 56.

**Elorrio.** 40 Eurotan alokagai. Kiroldegiko garajea. 2. solairuan, irekia. Tel.: 687 740 449

**ERRENTAN HARTU**

**Berriz.** Garaje itxi bat behar da kotxe bat eta txakur txiki batentzako. 94 622 57 24 edo 680 509 532

**Elorrio.** Garaje baten bila bi motorentzako. 659 304 024

**Elorrio.** Furgoneta bat sartzen den garaje baten bila nabil, alokatzeko. 679 666 331

**Teknologia**  
**INFORMATIKA**

**Nintendo wii salgai.** Osagarri askorekin: mandoak, nunchakuak, wii fit tabla... Segurtasun kopiak irakurtzen ditu. 627 102 512 telefonoa edo egurre@gmail.com

**GAINERAKOAK**

**Ordenagailuak konpontzen ditut.** Etxez etxe joaten naiz konpontzen. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini eta abar. Arin eta merke! Tel.: 650 172 285

**Lana/negozioak**  
**LAN ESKARIAK**  
**OSTALARITZA**

**Durango.** Neska euskaldun eta ikaslea asteburuetan ostalaritzan lan egiteko prest. Tel.: 646 841 206

**ETXEKO LANAK**

**Durango.** Andre euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 659 088 185

**Durango.** Neska gazte bat arratsaldetan garbiketa lanak egiteko prest. 615 716 232

**PERTSONAK ZAINDU**

**Atxondo.** Neska gaztea eta euskalduna, aste barruan arratsaldean umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasten. Umeekin esperientzia eta autoa. Tel.: 626 196 885

**Durango.** Neska euskalduna, arratsalde edo aste bukatzeran umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 635 204 532 (mezua utzi)

